



Eskualdatzea, aukera

Martxan dauden negozioak har daitezke / 2-4

Arnasguneak, euskara biziberritzeko

UEMAk, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elkarlanean Arnasa Gara kanpaina garatu dute / 9

Irañetara zuntz optikoa aurten iritsiko da Sakanako proiektuaren bidez / 7

Abeltzainendako zatikatze eta eraldatze gela egiten hasi dira Etxarriko hiltegiak / 11

Larunbatean Altsasuko X. Duatloia jokatu da Ibarrea industrialdean, Nafarroako Txapelketa / 17

Goizeder Beltza eta Hodei Ezpeleta Binakako Urrezko Aizkolarien txapeldunordeak dira / 20

Castillo Suarez idazle altsasuarrak 'Loinatzen loa' album ilustratua kaleratu du / 21

Arantza Floresek antzezlanak argizatzen ditu; Arriagako argi teknikaria da / 22-23





Maria Eugenia Ayerdi Gozalo Coviran supermerkatuko nagusia da, eskualdatu ondoren. UTZITAKOA

"Harremanengatik, betetzen zaituen lana da"

M^a EUGENIA AYERDI OLATZAGUTIKO SUPERMERKATUKO NAGUSIA

Olaztiarra hilabete hasieratik bere izen bereko Coviran kateko supermerkatuaren nagusia da, aurretik bertan lan egin ondoren. Negozioaren eskualdatzeaz azalpenak eman ditu

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA

Hasiera batean, bakarrik egotea pentsatzen zuen. Baina hasiera gorabeheratsu xamarra izan du. Zeren etxean denek koronabirusa hartu zuten eta pixka bat ahul hasi zen. Eta ahizpa eta familia guztia laguntzera joan zaizkio. Zortekoa da, apalategien toki aldeketa familia guztiak lagundu diolako.

Aurretik arloan esperientzia zenuen?

Bai, aurretik supermerkatuan bertan langilea izan naiz ia zazpi urtez. Orain nik denda har-

tzeko aukera sortu da... eta animatu naiz. Hemen nago.

Nola sortu zen zugan negozio propioa izateko aukera?

Egia esan, oso gustura nago. Jendearekin tratuan jendeak maitasun handia ematen dizu. Oso gustura nago. Betetzen zaituen lan bat da, jendearekin duzun harremanagatik... Ez dakit nola azaldu. Gainera, txikitatik ezagutzen duzun herriko jendea da. Denak emakumezko aldamenekoak. Gainera oso esker oneko emakumezkoak dira.

Zer izan zen erabakia hartzera bultzatu zintuena?

Jendearen maitasuna eta nire familiaren babesa, senarrarena eta alabarena. Oso pozik nengoe la ikusten zuten eta babestu naute. Egia esan, nahiko garbi nuen. Oraingoak garai zailak dira ere, baina, tira, ausartu naiz. **Zergatik erabaki zenuen eskualdatzearen alde egitea eta ez zerotik hastea?**

Denda ezagutzen nuen, ez nintzen zerotik hasten. Dendak bezeria

zuen. Oso desberdina da zerotik hastea edo segida ematea.

Noiz hartu zenuen negozioaren ardura?

Martxoaren 1ean, duela ezer ez. Orain oso lanpetuta nago. Nirehen lanera etortzen nintzen, baina ardura ez zen nirea. Orain hori guztia. Eta, badakizu, autonomia izatean munduko ordu guztiak. Baina, ea zer gertatzen den. Baina, esandakoa, nahiko makal hasi naiz. Hirurak etxean egon gara, senarra ospitalean... Nahikoa gaizki pasatu dugu. Hasiera izugarria izan da. Zaila izan da. Bizi guztian gogoratuko dugu.

Aurretik zeuden bezeroei eutsi diezu? Bai. Maitasun handiz hartu naute. Jendea pozik etortzen da.

Zer diote?

Mundu guztiak animoak ematen dizkit. Asko animatzen naute. Beharrik denda zabalik ikustea, eta ez itxita egotea. Zeren herrietan denda txikiak ixtea penagarria da. Denda guztiak ixten badituzte, azkenean herrian ez dago ezer ez. Auzo honetan, ni neskatoa nintzela, lau pausotan hiru denda zeuden. Herrietan itxi eta itxi daude dendak. Baina jendea supermerkatua zabalik egotearekin oso pozik dago.

Bezero berriak lortu dituzu?

Bai. Lehengo bezero berak etortzen segitzen dute eta hemen mundu guztiarendako ditugu ateak zabalik, jendea etortzeaz pozik.

Apalategiak mugitu dituzula esan duzu, aldaketa handia egin duzu?

Aldaketa txiki batzuk egin ditugu, jendearendako berritasuna izan da hori.

Informazioa non lortu zenuen?

Aholkularitza aholku bila joan nintzen eta han jakinarazi zidaten Cederna Garalurren laguntza eman ziezadaketela. Cederna Garalurren izugarri lagundu didate.

Informazioa argia da?

Bai. Cederna Garalurren oso ongi, egia esan.

Eskualdaketa egiteko adostasuna lortzea, nola izan zen prozesu hori aurreko jabeekin?

Oso erraza izan zen eta izugarri lagundu didate.

Eskualdaketa egiteko laguntzaren bat jaso zenuen?

Momentuz ez. Garalurreko Susanak esan zidan Nafarroako Gobernuak denda txikiendako laguntza deialdia egingen duela, baina oraindik ez dute deialdirik egin. Zain egonen naiz, ea laguntza txikiren bat izan dezakedan.

Negozioaren ardura guztia duzu. Zer moduz daramazu?

Bertigo pixka bat dut. Baina, pixkanaka, eskaerak eta beste, momentuz, ongi moldatzen ari naiz.

Pandemia urtea nola pasa duzu?

Pandemiaren kontu honekin maitasun handia transmititu digute. Oso-oso eskertuta zeuden erosketa etxeraino eramateagatik. Edo eskaria telefonoz egiten zuten eta senarra edo beste norbait autoarekin etortzen zen eta jasotzen zuen. Jendearen maitasuna izan da.

Jendea eskaerak telefonoz edo sare sozial bidez egitera ohituko da agian?

Batez ere adineko jendea. Urte asko dituzten aldameneko emakumezkoak ditugu. Pandemia aurretik haietako batzuei erosketa etxera eramaten genien. Pandemiarekin askoz gehiagotan egin dugu hori.

Negozioaren ardura hartzeak lana eman dizu. Orduetik, pertsonalki, gaitasunen bat landu duzu?

Hain denbora gutxi daramadanez, ez dut nabaritzen. Administrazio ikasketen goi gradua ikasten ari den alabak asko laguntzen dit. Aholkularitzaren babesa ere hor duzu. Bestela, nik ezin izanen nuke. Animatuta nago.

Sakanakoa Sakanakoendako



IES.ALTSASU.BHI



"Ahal nuela esan nuen, eta, bai, ahal nuen"

SHEYLA VELASCO PIEDRA ALQUIMIA COLOR ILE APAINDEGIKO NAGUSIA

Olaztiarrak Etxarri Aranazko Artola kalean zegoen ile apaindegian lekukoa hartu du eta eskualdatzean izandako esperientzia azaldu du

A. A. I. OLATZAGUTIA/ETXARRI ARANATZ
Olaztiarrak eskarmentu handia du. Ile apaindegi askotan lan egingakoa da. 16 urtetatik darama batean eta bestean lanean, orain arte beti besteendako lanean.

Aurretik arloan esperientzia zenuen?

Ile apaindegi askotan egon naiz. 16 urtetatik daramat batean eta bestean lanean, beti besteendako lanean.

Nola sortu zen zugarako negozioa izateko aukera?

Ez nuke sekula pentsatuko nik hartuko nukeenik. Altsasun lan egiten nengoen, ile apaindegi hartako jabea bajan zegoen eta ni bakarrik gelditu nintzen. Oso gustura nengoen. Baina lagun batek esan zidan: Etxarrin eskualdatu nahi duen ile apaindegi bat dago. Ezetz esan nuen: "ni hemen geratuko naiz". Buruan bueltak eman nizekion eta, azkenean, lortu nuen ni hartzea.

Zer izan zen erabakia hartzeraz bultzatu zintuena?

Ni lanean bakarrik nengoen, arduraduna nintzen. Ahal nuela ikusi nuen. Gauzak nik bakarrik egitera bultzatuko ninduen norbait falta zitzaidan. Beti norbaitekin lanean nengoen eta esaten zidan egin hau edo bestea. Beti agindutakoa egiten. Neska honek aukera eman zidan. Esan zidan: zuk ahal duzu, eta bakarrik egingen duzu. Eta han utzi ninduen. Ahal nuela esan nuen, eta denborarekin ahal nuela ikusi nuen. Guztiek ahal duten bezala. Eta esan nuen: "beste pertsona batendako lan egin beharrean niretako egingen dut. Edo saiatuko naiz, behintzat".

Zergatik erabaki zenuen eskualdatzearen alde egitea eta ez zerotik hasia?

Aukera zegoen eta hartu nuen. Ez da erraza hala ere. Bezeroak badaude, baina bezeroak bestearekin daude gustura. Zu ailegatzaren zara, berria zara eta "nola-bait" bezeroak erosten dituzu. Baina geratzen diren edo ez, ikusi beharra dago. Batzuk ge-



Sheyla Velasco olaztiarrak Etxarri Aranatzeko Alquimia Color ile apaindegia du. UTZITAKOA

"BAKARRIK LAN EGINDA GAITASUNAK HARTU DITUT: ARAZOEI AURRE HARTZEKO, DIRU KONTUETAN..."

ratu dira, besteak joan dira. Berriak etorri dira.

Aurreko nagusiarekin batera lan egin zenuen, bezeroak ezagutzeko?

Ez. Eta orain ikusita, hobe litzateke ni berarekin denbora batez lan egitea eta gero ni bakarrik gelditzea. Berak lan egin zuen azkeneko eguna izan zen ostirala eta nilarunbatean lanean nengoen. Han zegoen nirekin, baina ez lan egiten, autonomo bezala. Dagoe-

neko baja emana zuen. Eta ni lanean gelditu nintzen. Esan zidan: honi gustatzen zaio hau, hari bestea... Baina ni, jada, lanean. Esan zidan nahi banu 15 egunez horrela geldituko zela, ni aurkeztan, baina ezezkola eman nion. Ni bakarrik gelditu nintzen. Orain, atzera begiratuta, beste modu batera egin beharko litzateke.

Bezero batzuei eutsi eta berriak lortu dituzu. Hori ere ez da erraza izan, ezta?

Bakoitza ez da ez hobe edo okerragoa lanean. Bakoitzak bere lan egiteko modua du, eta batzuei gustatzen zaie nirea, beste batzuei gustatzen zaie bestearena. Baina ez da erraza izan.

Noiz hartu zenuen negozioaren ardura?

Orain dela urte eta erdi.

Bezero berriak sartzea zerbaiten seinale ere izanen da.

Gauden egoeran zaila da. Gauzak pitteka lortzen dira, denbora eman behar diegu gauzei; lan egiten, bakarrik etortzen dira. Ongi egiten badituzu gauzak eta jendea ongi tratatu, azkenean, ahoz aho zabaltzen da.

Aurreko ile apaintzailearen bezeroek zer esaten dizute zuri?

Gustura daudela, oso maja naitela eta ongi lan egiten dudala. Aurreko ile apaintzaileari ere kostatu zitzaion. Lau amiñarekin hasi zen lan egiten eta pitteka egin zituen bezeroak. Eta, ni, berdin.

Nola izan zen eskualdaketa?

Lehenengo kontua nuen Laboral Kutxara joan nintzen eta han galdetu nuen zer egin beharko nukeen. Esan zidan bideragarritasun ikerketa egin behar zutela. Mahai gainean dauden baliabideak jarri, aztertu eta ea aurrera joan zitekeen. Haiek ezetz esan zidan. Hilabeteak itxaroten egon nintzen. Lehenengo baietz esan zidan. Hau hartzeko lana utzi nuen. Gero jendea aldatu eta ezetz esan zidan. Bankuetan galdezka ibili nintzen eta, azkenean, lortu nuen nire amaren laguntzarekin, beti bezala, lortu nuen. Ondoren, Cederna Garalurrera joan nintzen. Zer egin behar nuen esan zidan. Enplegu bulegora ere joan behar nuen paperak egitera. Gauza asko egin behar dira. Ez da batere erraza. Ez dute inongo erraztasunik ematen. Oso zaila izan zen, egia esanda. Tramite asko egin behar dira, eta paper pila bat. Baina, azkenean, lortu nuen eta hemen nago.

Jaso zenuen informazioa argia edo nahasia zen?

Argia. Zeren zerbaite ulertzen ez dudanean galderak egiten ditut. **Eskualdaketa egiteko adostasuna lortzea, nola izan zen prozesu hori aurreko jabeekin?**

Luzea izan zen, batez ere bankuetan ez nuelako lortzen... Edonola ez dizute dirurik ematen. Mahai gainean baliabideak jarri behar dira, eta bideragarritasun ikerketa egin behar da. Hori zaila da. Gainera, traba pila bat jartzen digute. Gu berriak gara guzti honetan. Gazteak gara. Ez dugu diru asko aurretztuta. Bestela ez genuke banku batean eskatuko. Ez dute erraztasunik ematen. Baina, ondoren, beste ile apaintzailearekin guztia erraza izan zen.

Eskualdaketa egiteko laguntzaren bat jaso zenuen?

Bai, jaso nuen laguntza autonomo berri eta emakumezkoa izateagatik, 2.000 euro. Pixka bat atzeratu zen, baina, jaso nuen. Eta gero nire langabeziaren kapitalizazioa. Ez guztia, zeren hor ere korapilo pila ditut. Langabezia egon nintzen azken aldian, lanaldi erdian aritzen nintzen, lanaldi erdiari kapitalizazioa eman zidaten.

Aurrera jarraitzeko adina, bai.

Bai. Batzuetan gogoak kentzen zaizu. Egoera ikusita. Eta gero jendeak beldurra dauka. Ez da lehen gauza. Baina, beno, aterako gara.

Orain dela urte eta erdi esan duzu.

Eta, gainera, haurdun nengoen. Txikitxoak pandemiaren erdian jaio zen. Ni pandemiagatik ile apaindegia itxita. Kaosa izan zen. Baina, hemendik aurrera, guztia goraka.

Pandemia urtea nola pasa duzu.

Egokitzea nahiko lan?

Pandemiaren aurretik lan egin nuen. Lehen lan egiten nuena ikusita orain egiten dudana ez da ezer. Baina, beno, urte bat aldaketentzako, berrasmatzeko, eta pitteka. Ikusten ari naiz jende berria etortzen ari dela.

Dirulaguntzarik jaso duzue itxita egoteagatik-eta?

800 euroko ordainketa bat jaso nuen. Ongi etorria, baina...

Gauza bat da besteendako lan egitea eta beste bat negozioaren ardura guztia zure gain hartzea. Zer moduz?

Batzuetan pentsatzen dut: zeinen ongi egon nintzatekeen lan egiten eta etxera, ezer gehiagotan pentsatu gabe. Bestalde beste abantaila batzuk dauzka: nire ordutegia nahi dudana bezala antolatzen dut, inor ez dut atzean esaka egin hau edo hori ez da horrela egiten.

Negoziaren ardura hartzeak lana eman dizu. Ordutik, pertsonalki, gaitasunen bat landu duzu?

Bai. Beste batekin lan egiten duzunean, nahi eta nahi ez, beti zalantzak galdetzen dizkiozu. Jendea egunero joaten da eta hainbat arazo agertzen dira: hau nola egiten dut? Zer jarriko nioke honi hau ez gertatzeko? Ile apaintzailea izatea ez da batere erraza. Beti beste batekin hitz egiten duzu konponbidea bilatzeko. Bakarrik zaudenean zuk bakarrik egin behar dituzu gauzak, zalantza horiek argitu. Jakina, gaitasunak hartu ditut. Baita diru kontuetan. Pixka bat guztian. Baina, langilea nintzen eta langilea naiz. Orain gehiago gainera



Cederna Garalurrek Sakanan dituen bi teknikariak, Oskia eta Susana. UTZITAKOA

"Lehen galdera da ea ziurtagiri digitala duen"

SUSANA MENDINUETA FLORES CEDERNA GARALURREKO TEKNIKARIA

Arbizuko industrialdean dago Utzugane, Sakanako Garapen Gunea. Bertan dago Cederna Garalur. Bai Mendinuetak bai Oskia Lazkoz Munarrizek ekintzaileak laguntzen dituzte

A. A. I. ARBIZU/SAKANA

Cederna Garalurreko teknikariek eskarmentu zabala dute ekintzaileei aholkuak ematen.

Edozein pertsona izan daiteke ekintzailea?

Ezaugarri edo trebetasun batzuk izan beharko lirateke, baina, bai. Batzuetan egoerak ere ekintzailetzara eramaten gaitu. Agian ez ditu ezaugarriak, zeren ekintzailea izateko indarra behar da. Batzuetan oztopo asko egoten dira eta ezaugarri batzuk izan behar dira. Baina denetarik dago. Eta egoeren arabera batzuk ongi ateratzen dira eta besteak ez.

Ekintzailetza laguntzeko zerbitzuetik laguntza ematen diezue.

Joan den urtean pandemiarekin ekintzailetzak behera eginen zuela pentsatzen genuen, baina 30 ekintzaile lagundu genituen. Zifrak mantendu dira, 2019an ere antzeko izan zen. Nahiz eta egoera larria izan pertsona batzuk lan egin dute bere jarduerara martxan jartzeko. Ekintzailetza Zerbitzua Nafarroako Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen du.

Jendeak zuengana jotzen du edo zuek ere jotzen duzue jendearengana?

Normalean beraiek etortzen dira hona. Arreta mistoa egiten dugu, ez bakarrik presentziala, baita teknologia berriekin ere (e-posta, telefonoz, bideo deiak...). Halakoak ere egiten ditugu egoeraren arabera. Jendea aurrez aurrekora ohituta badago eta horrela nahiago badu, ez dugu oztoporik jarri horretarako. Egia esan, joan den urtean normaltasunez egin genuen lan, konfinamenduko hilabeteak kenduta.

Zertan laguntzen dituzue ekintzaileak?

Batzuk ideia argi eta garbi dutela etortzen dira, eta ideia martxan jartzeko zer dirulaguntza dauden jakitera etortzen dira. Dirulaguntzen tramitazioan ere laguntzen dugu, dena online egin behar delako eta jendeak ez dituelako hainbat trebetasun. Beste batzuk landu nahi duten ideia batekin heldu dira. Baina gehiegi landu gabe dute ideia eta gure

"GURE METODOLOGIA DA EKINTZAILE BAKOITZAK AZTERTZEA NON SARTZEN DEN"

laguntza nahi dute zehazten joateko. Orduan bideragarritasun plana egiteko, ideia borobiltzen joateko aukera ematen diogu. Halakoak aurre pausoak ere egiten ditugu. Bideragarritasun planak egiten ditugu. Norbaitek inbertsio handia egin behar badu, eta zenbakiak ongi aztertu nahi baditu, edota askotan kutxek edo bankuek bideragarritasun plana eskatzen diete. Horregatik, arreta desberdina eskaintzen dugu. **Nik enpresa bat jarritz gero zerga, administrazio kontuak eta beste ikasi beharko nituzke.**

Bai. Jendea ere zer pauso eman behar dituen esaten diegu, alta emateko-eta. Bestalde, prestakuntza saioak antolatzen ditugu. Lehen presentziala zen baina joan den urtetik online egiten dugu. Hainbat ikastaro antolatzen ditugu, esaterako: "nola antolatu zure agiriak zerga bete beharrak betetzeko" edo "nola egin ogasunarekin egin beharreko tramiteak online", ordainagiriak eta beste ziurtagiri digitalaren bidez diseinatzeko. Zeren, gaur egun, ziurtagiri digitala oso garrantzitsua da. Jendea ere egiten diogun lehen galdera da ea ziurtagiri digitala duen. Ez badute egiteko

eskatzen diegu. Inportantea da gaur egun edozein tramite egiteko. Bai ekintzaileendako baita jendearendako ere. Tramiteak egiteko, edota osasun txostena kontsultatzeko. Hori egiten jakitea garrantzitsua da. Ez dugu inon ikasi, ez digute inon irakatsi. Erraza da, publikoa eta dohainik. **Martxan dauden enpresak ere laguntzen dituzue?**

Bai. Guk ez dugu formula magikorik. Gure metodologia da bakoitzak aztertzea non sartzen den. Guk tresna bat ematen diegu esanez: bilatu datu hauek, horiek eta beharrezko haiek. Beraiek bere ideian sartzen, sakontzen joaten dira. Eta datuak lortzen, ikusteko eta kontrastatzeko datu horiekin ideia bideragarria den edo ez. Haiek egiten dute, guk ez. Jakina, negozio bera izanik ere, egin behar duzun inbertsioa, eskatu behar duzun mailegua, kokapena... asko aldatzen da. Ez du ezer ikusterik taberna batek Altsasun kale batean edo bestean, edo Uhartan edo Dorraon edo...

Arreta pertsonalizatua?

Bai, bakarkakoa.

Gauza bera da negozioa zerotik hasia eta eskualdaketa?

Ez. Eskualdatzea egiten duenak, dagoeneko negozioa martxan du, bezero batzuk ditu, inbertsio batzuk ere baditu. Kasuen arabera interesgarria izan daiteke martxan dagoen negozioa hartzea. Zeren zerotik hastean, negozioaren arabera tramiteak, proiektuak eta beste egin beharra izan dezake martxan jarri aurretik. Martxan badago, eta lizentzia eta gauza guztiak baldin baditu, titularitate aldaketa egiten da eta errazagoa da martxan jartzea. Egia da ere, ongi aztertu behar dela hartu behar duzun negozio horrek zer zenbaki dituen, zein egoeratan dagoen. Zeren agian kasu batean ongi joan daiteke, baina zuk hartzen duzunean agian ez, lokalaren alokairuagatik... Nahiz eta gauzak errazagoa izan, beti ez da erraza. **Eskualdatze kasuan ere laguntzen duzue?**

Jakina. Beraiei hartu behar duten negozioaren datuak eskatzeko esaten diegu.

"ONGI AZTERTU BEHAR DA HARTU BEHAR DUZUN NEGOZIO HORREK ZER ZENBAKI DITUEN"

Eta eskualdaketa dagoenean, nagusien eta hartzailearen arteko harremanak nolakoak dira?

Pertsonen arabera izaten dira prozesuak. Batzuetan errazagoak eta besteetan zailtasunekin. Baina horrek ere zerbait esan nahi du. Dena informazioa da. Guk egoeraren berri ematen diogu eta erabakia pertsonala da. Horrek beti horrela izan behar du. **Informazio emateak errazak izaten dira eskualdaketa kasuetan?**

Denetarik dago. Datuak ematen dituenaren arabera. Batzuei agian gehiago kostatzen zaie. Normalean gauzak ongi joanez gero ez da problemarik izaten.

Jendeak nola daki negozio eskualdaketa daudela?

Bi bide daude. Alde batetik, www.navarraemprende.com web orria dago. Hor eskuz aldatu nahi duten negozioak daude. Negozioa itxi nahi dutenak webgunean haren berri eman eta harremanetarako bideak jarri, eta jendea harekin harremanetan jarriko da. Webgune berean badago beste orri bat zeinetan azaldu dezakezun zer nolako negozioa hartu nahi zenuke. Beste bidea, ahoz ahokoa da. Entzundakoa edo, baldin bazaude negozioa itxi behar duen pertsona batendako lanean eta interesatzen bazaizu... Horiek dira bideak.

Nondik heldu zaizkizue kasu gehiago, webgunetik edo ahoz ahokotik?

Ahoz ahokotik gehiago. Normalean, gertutasuna. Jendeak beste ezagutzen normalean, eta errazagoa egiten da. Berria denean, ez dakizu zein den, zer den... Jendea halakoak gehiago kostatzen zaizkio. Herrikoa, aldemeneko herrikoa... Hori errazagoa da, pertsona ezagutzen duelako.

Webgunean eskuz aldatu nahi diren Sakanako negozioak daude?

Bat edo beste badago, bai.

Hutsik dauden lokalak ugariak dira. Horiei bizitza emateko zer?

Ez dugu planik. Hori ekintzaileen esku dago. Kontua da denok dakiguna, negozio txiki gero eta gutxiago daude, lokalak gero eta gehiago. Hori merkatuaren aldaketaren eragina da. Merkatuan gero eta lehiakortasun handiagoa dago online merkatuarekin. Hori eragin handia ari da izaten merkataritza lokaletan.

Non zaudete? Nola jarri daitezke zuekin harremanetan?

639 900 336 telefonora hots eginez edo sakana@cederna.es e-posta helbidera idatziz.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Aitaren eguna

Garai batean erraz bizi nintzen. Ordurako lanean gustura eta bizitzeko gogo handia. Eguna trinkoa izaten zen eta jarduera pila bat egiten nituen. Bikotearekin paseatu eta bidaia ugari egin. Lagun taldean mendira eta eskalada. Kuadrillakoekin poteoak eta afariak. Nahikoa denbora kirola egiteko eta baita saltsetan ibiltzeko ere. Batzuetan, auzo lotsa ere sentitzen nuen. Bikotearekin batera etxea erosi eta bizimodu beteua nuela sentitzen nuen, neurri batean pribilegiatua. Horrela, handik gutxira bikoteak haurdun zegoelako berria eman zidan. Aita! Horixe berritasuna, zirrara eta ardura. Hilabeteak pasatuta, erditzeko ikastaroetan parte hartu nuen. Orduan ikasi nituen arnasketarako hainbat teknika, haizea hartu eta haizea bota. Eta eguna ailegatu zenean, erditzeko gelan egin nion harrera alabari. Dena ongi joan zen, amatxo ere ongi, eta egun neketsu pare bat ospitalean pasatuta, etxera. Gu biak, ama eta aita, bai, baina gurekin generaman ordura arte gure artekoa ez zen beste izakitxo hura, gure alaba, haur saski eramangarri batean sartuta. Etxera ailegatzean, aldamenekoarekin topo eginda, “zer txikia den!” esan zigun haurrari begiratuta. “Bai, honek bizitza osoa dauka aurrean” atera zitzaidan niri.

Etxean sartuta, haur saskia sukaldeko mahaiaren gainean utzita, han gelditu ginen izaki hari begira, zer egin oso ongi ez genekiela. Orduantxe konturatu nintzen aita nintzela, izaki hori erabat ezgaia zela, izaki horrekiko erantzukizuna nuela, eta inork ez zidala deus ere irakatsi aita batek zer eta nola egin behar dituen gauzak. Lehenengo hilabeteak izaki arrotz haren estimulu erantzunen behaketarako izan ziren. Horrela, hirugarren hilabetean edo, konturatu nintzen haur hura ezagutzen hasia nintzela eta igartzen nuela egiten zituen keinuen eta negarren zergatia. Eta handik aurrera, dena izan da jolas parkeko errusiar mendi batean ibiltzearen tankerakoa, lorik gabeko gauak, larrialdietako gauak eta gaixotasunak, jolasak eta abestiak. Geroago, bigarren haurra jaio zen. Ordurako zer edo zer banekien. Horrela, jolas gehiago, larrialdietako eta lorik gabeko gau gehiago, nola handitzen diren ikustea, haien jolasak, haien negarrak, irribarreak, haserreak, ikasketak, abenturak, bidaiak, kirol jarduerak eta beste makina bat kontu, hau da, haien hazkuntza, heziketa eta garapena. Bitartean, bikotearekin etengabeko negoziazioa eta lankidetzatza. Laburbilduz, ardura eta nekea, zoriontasuna eta maitasuna. Nolanahi ere esperientzia aberatsa, zirrargarria eta aberasgarria. Aita guztiei, zorionak!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak bame). GUAIXEk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Trenbide politika berri baterako aroa

SAKANA TRENAREN LAGUNAK TALDEA

Azken urte hauetan, luze, Espainiar Estatuak bere trenbideetako politika AHT lineak eraikitzean oinarritu du. Honek, jakina, kostu ikaragarria suposatzen du, kasu askotan trazatu berriak eraikitzea ekartzen baitu, dagoneko trenbide lineak badiren tokietan. Honen ondorioz, gaur egungo trenbidearen pitteak baxterketa gertatzen hasten da eta aldiriko nahiz distantzia erdiko bidaiarien garraioa baxtertuta gelditzen da. Hau guztiagatik, Espainiako Erreinuak munduan

AHT linea gehien dituen herrialdeetako bat, eta bidenabar, trenbidearen finantziazioan zorpetze maila handiena daukana.

Zorionez, azken aldian politika honen aldaketa xumebaten aurrean gaudela ematen du. Errioxan naiz Aragoin burdinbidearen hobekuntza proiektuak onartzen hasi dira. Arestian aipaturiko bi kasuetan bideak hobetzen eta egokitze lanak egiten ari dira bidaiari naiz merkantziak mugitzen jarraitzeko baina baita ere Prestazio Handiko trenak bertatik gaur egun baino abiadura handiagoan pasatu ahal izateko. Era berean, merkantzien garraioa sustatzen ari dira, bazterbideak handituz eta merkantzia tren luzeagoen joan etorriak ahalbidetuz.

Proiektu berri hauen inguruan jakin izan duguna **Sakana Tre-**

naren Alde Plataformak betidanik aldarrikatu duenarekin antza handia dauka: gaur egungo trenaren hobekuntza eta mantentzea, honela, merkantzien nahiz bidaiarien garraioa ahalbidetzen da eta herriak, hiriak eta industri guneak batuz lurraldea kohesionatzen da. Baina, era berean, ibilbide luzeko bidaiak sustatzen dira hain kutsakorra den bideberriko garraioa pitteka-pitteka txikituz.

Mota honetako proposamenek AHT linea berriek suposatzen dituzten kostu izugarri horiek baina askozaz merkeagoak izaten dira. Eta hau gutxi balitz, gure bailaretako ekosistemak eta lurraldearen egonkortasuna gordetzen laguntzen dute. Hauxe da, beraz, Nafarroako Gobernuak ekimen mota hauen aldeko apustua egiten hasteko unea.

GUTUNA

Osasuna zainduz eta/edo gaixoak sendatuz

JOSEBA BARRIOLA

Nafarroako Osasun Plataformak egindako galdeketa hainbat puntu zehazten dira osasun zentroetan ematen den arreta duina izan dadin. Martxoko asteazkenetan, 11.00etan, elkarretaratzten gara Nafarroako hainbat herritan, Altsasu tartean, osasun zentroaren aurrean. Gogearako bidea eman dit.

1. Osasun Zentroa deitzen dugu, baina bere funtzioa ez da osasuna sustatzea eta hobetzea, gaixotasunak sendatzea baizik. Osasun Laborala deitzen dena ere, lanean sortutako gaixotasunez arduratzen da. Baina osasunaren kalitatea sustatzeaz eta hobetzeaz zein arduratzen da?

2.- Gaixotasun mota asko daude: pertsonalak, sozialak eta naturaren

egoerarekin lotuak. Gaixotasun pertsonalak gaixotasun fisikoak dira (giharretakoa, bihotzekoa) eta beste batzuk psikikoak (estresa, depresioa...). Badira ere gaixotasun sozialak (fisikoak eta psikikoak: zarata jasanezina; airearen kutsadura; edateko ur kloratuegia; pestizidekin edo antibiotikoz landutako edo loditutako elikagaiak; beldurraren hedapen planifikatua; gerrak...). Eta azkenik naturarekin loturiko gaixotasunak (aldaketa klimatikoaren ondorioz datozen ekaitzak, uholdeak, desertifikazioak, suteak, ekosistemen suntsipena, pandemiak, goseak eta beldur itogarriak...). Gaixotasun pertsonal gehienak badira aldi berean psikosomatikoak, eta sozialak, eta naturaren kutsadura edo sustsipenarekin lotuak.

3.- Zeintzuk artatzen dira osasun zentroan? Pertsonalak eta somatikoak. Baina munduko gaixotasun moderno epidemikoen

artean depresio eskizofrenia aipatzen dira. Baina sendaketa psikikoak (depresioa, estresa eta abar...) bigarren mailan daude. Gaixotasun pertsonal asko gizartearen antolakuntzaren ondorio dira! Edota naturaren gorabeherekin zer ikusia dute!

4.- Nola artatzen dira gaixotasunak? Funtsean bi bide: farmakologia (pilulak) eta operazio klinikoak. Hernia duzu, minbizia? Operatu. Buruko mina, insomnioa, gastritis? Pilula... Hau ez da serioa. Gaixotasun iturria mantendu, pilularekin lasaitu, gaixotasuna berriro agertu, pilulak bizitza osorako.

5.- Gure osasuna, neurri handi batean, merkatuan agintzen dutenen menpe dago eta publizitate bidez gidatua da. Denboraren erabilera, espazioan kokatzea, bizitza abiadura, botere harremanek ez dute lekuri osasun zentroan. Ezta mediku ikasketetan ere. Ez al gara gaixo dagoen gizarte batean bizi?

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhora Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Miren Alonso Razkin

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Utzitako lantegian pilatutako arropa metak. ARTXIBOA

Aralurren botatako arropak jaso gabe segitzen du

Itxitako lantegian arropa tonak legez kanpo bota zituen Gipuzkoako enpresa batek 2019an eta jaso gabe daude

ZIORDIA

2019ko iraila erdialdetik hamar bat kamioikada arropa Aralurren enpresa zeneko lantokietan botata daude. Birziklatzeko Gipuzkoako enpresa batek jasotako arropa da Ziordiko lantegian botata bukatu zuena. Ziordiar batek isurketa haietako bat ikusi ondoren Foruzaingoa jakinaren gainean jarri zuen Ziordiko Udalak eta Etzegarateko portuan kamioia atzeman ondoren jakin zen arroparen jatorria zein zen. Aurretik, Gurelur elkarteko kide batek kamioi bat enpresaraino segitu zuen.

Arroparen legez kanpoko isurketa salatzen lehena Ziordiko Udala izan zen. Eta, ondoren, duela urte bat Gurelurrek egin zuen salaketa publikoa. Salaketak salaketa, arropa lantokian botata jarraitzen du. Ziordiko Udalak horiek eta inguruko hondakinak kentzeko foru administrazio aurrean presioa egiten ari da. Bitartean, enpresarako pasa ixteko eta isurketa gehiago ez egiteko bidean hesia jarri zuen udalak.

Bestalde, Gurelurrek salatu duenez, “urtebete pasata ere, Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentuak ikuskizun

lotsagarri hori kentzeko ez du ezer egin. Gure ustez, urtebete nahikoa da Gipuzkoako enpresa legez kanpo isuritako arropa kentzera behartzeko”. Eta foru administrazioari hondakin horiek “beherala” kentzeko eskatu dio. Gurelurreko ordezkariak gaineratu dutenez, “ingurumen eraso horren erantzuleak izan dituzten erantzukizun administratibo eta legalak gauzatu behar ditu”.

Erakundeko bozeramaileek gaineratu dutenez, “legez kanpoko kudeaketa horrekin, enpresa etekin handiak lortzen ari da, herritarrek ematen duten arropa berrerabiltzen ari balitz bezala kobratzen ari baita”. Italian hondakinen kudeaketan dagoen “mafia jokabideekin” parekatu dute Ziordiko isuriak. Gurelurreko kideek salatu dutenez, halako gertaerek “arrazoia eman diete herritarrei, azken urteotan zalantzan jarri baitute benetan birziklatzen ari direnik ingurumenarekin sentsibilizatuta dauden herritarrok arreta handiz bereizten ditugun hondakinak”. Erakundearen iritziz, lantegi barruan eta kanpoan pilatutako guztiarekin inguru hori, “paisaiari dagokionez, Nafarroako kutsatuenetakoa da”.

LHn teknologia aplikatuko eta ekintzailatzeko gela

Ikasgelak lan inguruneetara hurbiltzen diren espazio bihurtzea da teknologia aplikatuko gela funtsa, produkzio sektore bakoitzari dagozkion baliabideak txertatuz, simulagailuen eta beste elementu teknologiko batzuen bidez

SAKANA

Heldu den ikasturtean Hezkuntza Departamentuak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioarekin lankidetzan, teknologia aplikatuko 6 gela eta ekintzailatzeko 9 gela ezarriko ditu Nafarroako sareko Lanbide Heziketako ikastetxeetan. Gela horietako bat Sakana Lanbide Heziketa institutuan jarriko da.

Espazio berri horiek haien moldagarritasuna bermatuko dute, hainbat arlo kontuan hartuta, konektibitateari eta oinarritzko ekipamenduari dagokionez banda zabal ultra azkarra wifia eta zuntz optikoz konektatuta egonen dira; agertoki birtualak eta presentzialak eta beste edozein modalitate trukatze gaitasuna izanen dute; akustika eta argiztapen baldintza egokiak izanen dituzte; altzariak izanen dituzte lan eremuka eta Wall-Art diseinu eremuka; alde aurreko teknologia analisiak egingo dira, ikastetxeak duen



Tailerrean soldatzen. ARTXIBOA

hardware eta software teknologia maila ezagutzeko eta espazioa baliozkotzat jotzeko. Gehitzen joango diren espazioak, unean uneko beharren arabera konfiguratu daitezkeen beharretara egokituta.

Ikasgela horiek honako ekipamendua izanen dute: informazioa aurkezteko elementu digitalak, ukipen pantaila, kalitate handiko proiektagailua, irakasleari urrutiko eta aurrez aurreko edukiak idazteko eta partekatze aukera ematen dion elkarlaneko arbela, irakaslearen estaldura une oro bermatuko duten streaming bidezko bereizmen handiko kamerak, mikrofonia direkzionala eta gelaren ezaugarrietara egokitutako sonorizazioa, zentroen arteko eta komunitateen arteko lankidetzat plataformak, sistema aplikatuen inprimagailuak, sistema mistoak eta sistema eskaneak eta sistema birtualak.

Sortutako espazio berriek aukera emanen dute ezagutza area gotzeko, esperimentatzeko eta erabakiak hartzeko, baliabide guztiak aprobetxatzeko, eta hezkuntzaren eraldaketa gaitzeko, teknologia liderrarekin eta ekosistema jasagarri batekin.

Sinadura bilketa hasia

Hasi da osasun arreta egokiaren aldeko sinadura bilketa Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian. Haren bidez lehen osasuneko arreta duina izateko beharrezko baliabidez hornitu dezaten eskatuko dute sinatzaileak. Gauza bera egiten dute martxoko asteazkenetan 11:00etan osasun etxe parean kontzentratzen diren protestariak.



Arruazuko estalpe proposamenak ezagutzeko garaia

Arruazun plazan estalpe finko bat jartzeko aukera aztertzen ari dira. Arruazuko Udalak zabalduko inkestean emaitzekin eta otsailaren 27an egindako batzarrean arbasuarekin emandako iritziekin arkitektoek bizpahiru estalpe proposamen egiteko hitza eman zuten. Beraien lana larunbatean, 17:00etan, aurkeztuko dute batzarrean.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

948 563 253

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



Eskolen eraikinaz herri galdeketa egingen da

Uda aurretik egingen da. Aurretik alde on eta txarrak auzoka azalduko dituzte

BAKAIKU

Bakaikuko Udaleko auzolana arautzeko ordenantza idatzia dute dagoeneko. Hala ere, onartu aurretik bakaikuarren artean banatuko da eta hilaren 26ra arte jendeak hura kontsultatu eta zalantzak argitzeko aukera izanen du partehartzea@bakaiku.eus e-postaren edo 622 268 161 telefonoaren bidez. Ekhi Etxeberrria Kaiuela zinegotziak azaldu duenez, "parte hartze prozesuan erabaki zena idazterakoan sortzen diren zalantzak argitzeko izanen da epe hori". Udalak ordenantza hilaren akaberan onartuko du. Ondoren, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta hilabeteko epean alegazioak egiteko epea izanen da. Halakorik ez badago, behin betiko onartuko da.

Eskolen eraikina bota eta eraikin berria jaso edo dagoen eraikina zaharberritzea. Bi aukera horiek dituzte mahai gainean eta bakaikuarrek erabakia herri galdeketa bidez hartu nahi dute uda aurretik. Horregatik, galdera zein izanen litzatekeen aztertuzten larunbatean. Etxeberriak azaldu digunez, eraikin berria aukeratuko balitz solairu bakaurreko eraikina litzateke ludoteka eta gaztetxokoa eta erabilera anitzeko gela litzukeena. Eraberritza aukeratuko balitz ere, beheko solairuan ludoteka eta gaztetxokoa eta erabilera anitzeko gela leudeke eta goiko solairua hutsik utziko litzateke (diru kontuengatik). Hala ere, galdeketa-aren aurretik "proposamen bakoitzaren alde on eta txarrak auzoka azalduko ditugu", esan du zinegotziak, hori Aste Santu ondoren izanen dela gaineratuz. Bestalde, udal ordezkariak etxebizitzari buruz zabalduko inkestak 27 bakaikuarrek erantzun zituztela jakinarazi zuten, aztertzeko daude. Eta "dauden erroreak aztertu" zituzten ere.



Irañetako frontoiaren frontis ondoko plakak haizeak eraman zituen eta seguruaren bidez berriak jarriko dira.

Zuntz optikoa aurten iritsiko da

Sakanan garatzen ari den zuntz optikoko proiektuak telekomunikazio zerbitzua emanen du Irañetan aurten. Bestalde, haizeak eramandako frontoiko plakak jartzeko lanean ari da udala

IRAÑETA

Irañetako Udalaren aurtengo aurrekontuko diru sarrerak joan den urtekoekin alderatuta 180.000 euro inguru txikiagoak dira. Aldea inbertsioetan dago, joan den urtean ur biltegi berria egin baitzuten, eta aurten ez baitu udalak halako inbertsiorik aurreikusten. Hala gaztigatu du Ainhua Beraza Maiza alkateak.

Aurtengorako udalak 172.912,42 euroko sarrerak aurreikusi ditu eta 145.555,59 euroko gastua.

Alkateak azaldu digunez, zuntz optikoa aurten iritsiko da Irañetara. Sarea herriko etxeetara eramateko 19.000 euroko diru saila dute prest. Sakanako Mankomunitatearen Telekomunikazio Batzordea Guifinet fundazioarekin lantzen ari den proiektuaren arabera Aizkorbe eta Etxarri Aranatz arteko sare indartsu bat jarriko da eta hara lotuko da Irañeta. Lan horrek 400.000 euroko aurrekontua du eta Nafarroako Gobernuak 160.000 euro jarriko ditu Geroa Baik eta EH Bilduk aurkeztutako emendakin bat onartu ondoren.

Bestalde, lastaila aldera izandako haizete batek frontoian

kalteak sortu zituen. Zehazki, euritik babestu eta, aldi berean, argia sartzen uzten duten panel gardenen ilara bertikal bat eraman zuen. Kale Nagusira ematen duen aldean falta diren plakak jartzeko udalak aseguru etxearekin hitz egin du eta lana egin dezan, kontratista noiz libratu zain daude udalean.

Argia eta ura

Joan den urtean herriko argiteri publikoko bonbilla gehienak LEDengatik ordezkatu zituen udalak. Horretarako 19.500 bat euro bideratu zituen. Nafarroako Gobernuak udalei despopulazioari aurre egiteko eta pandemiak eragindako gastuei aurre egiteko dirulaguntzekin pagatu zuen udalak berritzea. Berazak jakinarazi digunez, "guztiak aldatzeko oso gutxi falta da. Aztertzen ari gara horretarako laguntzak eskatzea merezi duen edo ez". Egindako aldatetaren ondorioz, Irañetako Udalak argindar fakturan gutxiago pagatzen du.

Udazkenetik, behar besteko gaitasuna duen eta araudira egokitutako ur biltegia dute irintarrek. Obrarekin lotutakoekin despiditzeko udalari administrazio kontu batzuk lotzea falta zaio orain. Handik gertu dagoen Basabeako bordari aisialdi erabilera eman nahi diote aspaldi. "Ikastetxei eskaintzea da ideia. Baina pandemiarekin ezin. Aurrerago landuko dugun zerbait da", azaldu du Berazak.

HITZALDI-LANTEGIA

Martxoaren 30ean, asteartearekin, 17:30etik 19:00etara.
ARBIZUKo Kattuka haur eskolan.

album ilustratuak

ELKARREKIN IRAKURTZEN

NORK ESKAINIKO DU?
Karla Fernández de Gamboa Vázquez, Hezkuntzan doktorea, EHUko irakaslea eta album ilustratuaren aditua.

NORENDAKO DA?
Guraso, irakasle, irakasle-gai, hezitzaile, zaintzaile eta bitartekariendako.
Haur Literatura gustuko duen edonorendako.

NON EMAN BEHAR DA IZENA?
Lantegian parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute alde aurretik euskara1@sakana-mank.eus helbidean.

ZEINTZUK DIRA HELBURUAK?
0-6 urte bitarteko umeendako gomendagarriak diren album ilustratuak aukeratzeko irizpideak, horiek irakurtzean kontuan hartu beharreko elementuak eta nola jardun azalduko du tailergileak.



Dokumentalaren aurkezpenean parte hartzaileak eta sustatzaileak. NIE

Ikastolen hazietatik euskararen loreak

Nafarroako Ikastolen mugimenduak euskararen berreskurapenean, transmisioan, sustapenean eta zabalkundean izan duen eraginaz dokumentala aurkeztu dute. Ostiralean mustu ondoren, www.nie.eus webgunean dago ikusgai

SAKANA

Nafarroako Ikastolen Elkartek (NIE) *Landatu, ureztatu, loratu* dokumentala aurkeztu zuen larunbatean. Nafarroako ikastolen mugimenduko 11 kideren eta euskalgintzako beste hiruren elkarrizketek osatzen dute ikus-entzunezkoaren ardatza. Guztiek ere Nafarroako ikastolen mugimenduak euskararen berreskurapenean, transmisioan, sustapenean eta zabalkundean izan duen eragina ezagutzeko testigantzak ematen dituzte.

NIEko buru Josu Reparazek azaldu zuenez, "jasotako testigantzak oso interesgarriak izan dira. Ikastolen sorrerak euskararen berreskuratze, transmisio,

sustapen eta zabalkundean nola lagundu zuen erakutsi nahi izan dugu, bai eta euskara garai hartan Nafarroan zein egoeretan zegoen ere, besteak beste". Kamera aurrean jarri direnen artean bi sakandar daude: Marta Igoa Erro etxarriarra Nafarroa Oinez festari buruz hitz egin duena eta Aitziber Etxaiz Soria, Iñigo Aritzika ikastolari buruz hizketatu dena.

NIEk proiektu horren bidez, "Nafarroako gizartean gure hizkuntza eta kultura bultzatzeko hainbat modu ikusarazi nahi izan ditu, gure materiagabeko ondare garrantzitsuena babesteko eta etorkizunean berauen erabilera eta balioak mantentzen

jarraitzeko". Dokumentala Nafarroako Gobernuako Kultura Departamentuaren Sustraiak/Raíces deialdiko finantziazioari esker egin dute. Aitor Ortiz de Feliperen ardura izan da hura ontzea. Elkarrizketak grabatu ondoren dokumentazio lana egin zuen ikus-entzunezkoa osatzeko. Dokumentala www.nie.eus web orrian ikusgai dago.

Elkarrizketatuak honakoak dira: Carlos Garaikoetxea, Patxi Zabaleta, Arantzasu Amezaga, Javier Yaben, Irene López-Goñi, Jemi Sorabilla, Luis Fernando Etxeberria, Andres Iñigo, Paul Bilbao, Aitor Etxarte Berezibar, eta aipatutako sakandarrak: Marta Igoa eta Aitziber Etxaiz.

Aralarko aingeruak herriz herriko bidea hasiko du

Ohi bezala, aurreneko irteerak, Lakuntzara eta Arruazura egingen ditu; gaur eta igandean

SAKANA

Nafarroan ederki asko ezagutzen du Aralarko aingeruaren irudiak. Urtero 300dik gora herri bisitatzen ditu irudi bidaiariak. Pandemiak eta ezarritako itxialdiak planak guztiz aldarazi zizkigun guztioi joan den urtean, baita irudia garraiatzen duten fededunei ere. Alarma egoera indarrean bada ere, pandemiari buruzko ezagutza handiagoa da eta horrek Aralarko aingeruari herriz herriko ibilbidea egiteko aukera eman dio.

Urtero estreinako bi irteerak Sakanan egiten ditu Aralarko aingeruak eta aurrenekoak hala izanen da. Gaur, 12:30ean, Lakuntzan egonen da eta igandean, 10:00etan, Arruazun. Elizkizunetan presente egonen da, baita gaixo daudenak bisitatu ere. Bestalde, pandemia indarrean den artean ezin da aingerua gurtu, musu eman. San Migel egunean men egin zion jendeak, hau da, buruarekin keinu egin eta, pertsonen irudia ikutu gabe, apaizak aingeruarekin jendeari gurutzaren seinalea egin zion. Bestalde, herri herriko ibilbideari apirilaren 4an ekinen dio Aralarko aingeruak. Ohi denez, santutegiaren eta Baraibar arteko bidea egingen dute oinez.

Arrazakeriaren kontra, parte hartzeko deialdia

Arrazakeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da igandean. Hori dela eta, Txingurriyeko *Arrazakeria baztertu!* leloa duen ekitaldia antolatu du igandeko. 12:00etatik aurrera izanen da, plazan. Herri erdigunera hurbildu ahala munduko musikak entzuten hasiko dira lakuntzarrak eta bisitariak. Txingurriyeko kideek plazan jarritako standetik jarriko dute musika.

Hara hurbiltzen direnek arrazakeriaren kontrako ekarpena egiteko aukera izanen dute, Txingurriyeko taldekoen asmoa baita hainbat hizkuntzatan kartelak sortzea. Beraz, joaten direnak bere ekarpena idatziz, marraztuz, eskua estanpatuz edo beste moduren batean egiteko aukera izanen dute. Horrekin batera, Txingurriyeren standetik pasatzen direnak Denboraren Bankuari buruzko informazioa jaso dezakete, han parte hartzeko azalpenak ematen baitituzte. Haren bidez zerbitzuak edo lanak trukutzen dira normalean.

San Benito ermitan hitzordua astelehenean

San Benito, martxoaren 21ean ospatzen da. Aurreneko bakaikuarrek ospakizuna egun bat atzeratzea erabaki dute eta astelehenean joanen dira herriatik hego mendebaldera kilometro batera dagoen ermitara. Meza 17:00etan izanen da ermita txikian. Elizkizunaren ondoren apaizak so-roak bedeinkatuko ditu, "fruitua eman dezaten".





Bingen Zupiria, Silvia Marañon, Ana Olló eta Iñaki Lazkano prentsaurrekoa eman aurretik plazan.

Euskaraz bizi diren herriak

Arnasgune deitzen zaie. Arnasgunetan modu naturalean bizi daiteke euskaraz, hizkuntzaren transmisioa ziurtatuta dago eta euskararen hedapenean laguntzen dute. Euskararen biziberritzean duten garrantzia gogorarazi nahi du Arnasa Gara kanpainak

ETXARRI ARANATZ

Silvia Marañon Chasco alkateak anfitrioi lanak egin zituen atzo, udaletxean hartu baitzituen Arbizu eta Etxarri Aranazko udalak kide dituen Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) lehendakari Iraitz Lazkano, Nafarroako Gobernuako Herriarrekiko Harremanetarako kontseilari Ana Olló Hualde eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiria Gorostidi. Hiru erakundeen artean Arnasa Gara kanpaina sustatu dute eta aurtengo jarduna aurkeztu zuten.

Kanpainaren bidez, arnasguneen garrantzia nabarmendu nahi dute eta hizkuntza ohituren inguruan hausnarketa sustatu nahi dute. Horretarako, hurrengo zortzi astelehenetan esketx batez osatutako bideo labur bana zabalduko dute. Haietako bako-

itzean udalerri euskaldunetan eta euskararen arnasguneetan hizkuntza ohiturei lotutako zortzi egoera landu dituzte. Gainera, egoera horien inguruko sentsibilizazio lanketa bat egingen da sare sozialen bidez.

Horrekin batera, arnasguneetan bizi diren musikari, aktore, kazetari eta kirolariei online elkarrizketak ere zabalduko dituzte asteazkenetan Instagrameko @ArnasaGara profilaren bidez, Live formatuan. Hitza hartuko dute Antton Telleriak, Aitziber Garmendiak, Eñaut Elorrietak, Sambou Diabyk, Erika Olaizolak, Ander Lipusek, Iratxe Urkiagak eta Ainhoa Etxebarriak. Gainera, kanpaina zabalitzen parte hartzen dutenen artean astero zozketa egingen da aipatutako sare sozialean. Argia, Elhuyar eta Gaztezulo aldizkarietako urteko harpidetzak zozketatuko

dira astero, baita Elkar dendetan gastatzeko txartela ere.

Bestalde, "Egunean Behin" joakoaren bidez ere ezagutaraziko da "Arnasa Gara" kanpaina eta aste betez aplikazio ezagunaren erabiltzaileek arnasguneen inguruko zenbait galdera ere erantzun beharko dituzte. Kanpaina despeditzeko, UEMAko kide diren herrietan zortzi bideoak aurkeztu eta tailer moduko hausnarketa saioak ere egingen dituzte. Era berean, UEMAko kide diren herrietako ikastetxeetan lantzen duten hezkuntza proiektuaren baitan ere erabiliko dituzte au-

**SAKANDARREN %23,4
ARNASGUNEETAN BIZI
DA, ARRUAZU, ARBIZU,
ERGOIENA, ETXARRI
ETA URDIENEN**

rrerantzean bideoak, soziolinguistika edukiak eta hizkuntza ekologia eskoletan lantzeko prestatuta dituzten unitate didaktikoetan.

Garrantzia

Kanpaina duela bi urte aurkeztu zuen hirukoak eta aurtun segida eman diote. Marañonek azaldu zuenez, "herriarrek kontzientziatzeko" kanpaina da, "egunerokoan euskara nola erabiltzen dugun eta zer-nolako ohiturak ditugun hausnartu dezagun". Ollók gaineratu zuenez, "udalerri euskaldunetan modu naturalean transmititzen da euskara, belaunaldi batetik bestera, herri honen aniztasunari eta kulturari ekarpen garrantzitsua eginez. Nafarron ondarea babesten eta ezagutarazten egiten dugun ahaleginaren baitan, arnasguneak ere kontuan hartzea garrantzitsua iruditzen zaigu". Kontseilariak gaineratu zuenez, kanpainarekin bi helburu lortu nahi dituzte, "batetik, udalerri euskaldunetako herriarrek kontzientzia har dezaten, non bizi diren, eta zer-nolako garrantzia duen euskarak nafar guztion ondasuna lau haizetara zabaltzeko. Eta, bestetik, udalerri euskaldunetan bizi diren herriarrek ere arnasguneak zer diren uler dezaten, aniztasunari eta herri honen kulturari egiten dioten ekarpena kontuan hartuz".

Ollók nabarmendu zuenez, kanpainak "hizkuntza ekologiarren kontzeptua dakar erdigunera. UEMAren eta Nafarroako Gobernuaren elkarlanari esker hainbat eskoletara heltzen den hezkuntza proiektuan lantzen den moduan, hizkuntza biziberritzeko giltzarriak dira euskara modu naturalean hitz egiten eta zabalitzen duten eremuak. Horren berri eman nahi diegu gainerako nafar guztiei ere, udalerri euskaldunetan egunero ohikoak diren gertaerak bideo laburretan bilduta, hausnarketarako atea zabalduz".

Elkarlana

UEMAko Lazkanok gaineratu zuenez, "herriarrek kontzientziatzia giltzarria da hizkuntza ohituren inguruan hausnartzeko eta horietan eragiteko. Hori bultzatu nahi dute 8 bideo hauek, eta udalerri euskaldunetan berriaz aurkezteko moduko bitarteko oso erakargarriak dira".

UEMAren gazteen euskararen erabilera ohituren inguruko "kezka handia" dutela gaztigatu zuen. "Horregatik abiarazi genuen UEMAren hezkuntza proiektua, duela lau zapabost urte, eta bideoak han landuko dira, ehunka eskoletara eta milaka ikaslerengana iritsiz". Kanpaina "herriarrek eta gazteen kontzientziatzia erakargarria" dela iruditzen zaio.

Lazkanok, bestetik, kanpainak "hizkuntza politikarako garrantzitsuak diren eredugarritasuna, elkarlana eta herriarrek kontzientziatzia" biltzen dituela nabarmendu zuen. Erakundearen eredugarritasunaz esan zuen: "guk euskaraz egiten badugu, herriarrek ere bideratuko ditugu horretara. Bideoek hausnartzeko bidea ematen dute". Elkarlanari dagokionez, kanpaina hiru erakunderen lanaren emaitzaren fruitu dela nabarmendu zuen. Azkenik, herriarrek kontzientziatzia eragiteko asmoz hitz egin zuen: "bideoek zerbait erakusten badute, hizkuntza ohiturak inertziaz errotuta ditugula da, eta horiek iraultzeko gure hizkuntzaren eta euskararen egoera soziolinguistikoa inguruko hausnarketa eta pedagogia beharrezkoa dela. Horretan eragin nahi dugu bideoekin, eta haiek zabalitzen bidelagunekin".

Azkenik, Zupiriak ere elkarlanaren garrantzia eta herriarrek kontzientziatzia eragiteko beharra nabarmendu zituen. Sailburuak adierazi zuenez, aurkeztutako ekimena "arnasguneen euskararen biziberritze prozesuan duten garrantzia eman eta zaintzen jarraitu nahi duen programa bat da. Bide horretan, hizkuntza politikaren arloan erakunde desberdinen artean ematen den lankidetzaren azpimarratu du.

Txalaparta

Erabili musukoa eta mantendu distantziak

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

"Umeek urtea daramate aita bisitatu gabe"

NAGORE ARAMENDIA AGIRREGABIRIA MOTXILADUN UMEEN AMA

Dueñasako kartzelan preso dago Asier Carrera Arenzana eta badirudi Martutenera eramaneen dutela. Bitartean kartzela, COVIDa eta familiak aritu da Aramendia

ETXARRI ARANATZ

Oihan Barandalla Goñi etxarriarra ostiralean aske gelditu zen eta ordutik motxiladun ume bat gutxiago dago. Bi motxiladun ume dituzte Asier Carrera Arenzana presoak eta Aramendik. Azkenak haien egoera azaldu du. **Guraso izateko erabakia hartu zenuenean, zertan aldatu zen bizitza zureta eta berarendako?** Edozein gurasori bezala ardura eta kezka pila. Horri guztiari gehitzen zaio bisitetara joateko kezka, bidean zer topatuko dugun, zer funtzionario tokatuko zaizun, funtzionarioak jostailuak sartzen utziko duen edo ez... kezka mordoa sortzen zaizkizu. Nahi duzu umeak beti ongi sentitzea, ez sumatzea aitaren falta, sentitzea aita gertu daukala. Gorabehera asko. Ahalegindu gara harreman hori gertu gertuko izaten aurrez aurreko bisitekin-eta. Suertea izan dugu Dueñasekin, nahiko gertu tokatu zaigu, ez da garai batean bezala, Huelvaraino joan beharra.

Asierrek lehen ez zuen kezka bat sentitzen du. Baina umeekin beste istorio bat da. Asko aldatzen da. Garai honetan galderak hasiko dira.

Eta poztasunak?

Umeek ematen duten poz hori hor dago. Bisitan joaten garenean niretako bizipoza da umeak joatea eta jolastea bere gauzean, telefonoan hitz egiten jartzea... jakina. Kartzelan bizi egin behar da baita ere.

Burua prestatu behar da?

Ez zen erabaki erraza izan. Nik ama izan nahi nuen eta Asierrek ez zuen horren garbi. Esaten zuen asko falta zela kalera ateratzeko. Bera eguneroko bizitzan ume horiekin ez egotean galera bat zuela bazekien. Mentalizatu egin behar da. Eta uneoro egokitzen joan.

Zer bisita mota dituzue?

COVIDaren aurretik hilabetero familiako aurrez aurreko bisita



Nagore Aramendia Agirregabiria seme-alabekin.

"COVIDAREKIN UMEEI ESKUBIDE GUZTIAK URRATU DIZKIETE. GURASOekin EGOTEKO ESKUBIDERIK EZ DUTE"

bat, elkarbizitzako aurrez aurreko bisita bat eta aurrez aurreko bisita intimoa izaten genituen. Ikasketengatik eta kirola egiteagatik berari puntuak ematen zizkieten eta aurrez aurreko bisita estrak lortzen genituen. Askotan umeekin joaten ginenean lau ordutarako joaten ginen, arratsalde osorako. Bisita kopuruaren arabera, umeak hilabeteetan bitan edo behin joaten ziren.

COVID-19 gaitzarekin zein aldaketa izan dira?

Kartzelako zuzendariak erabaki zuen aurrez aurreko bisitarik ez zela eginen, arriskua handia zela. Eta urte batean umeak ez dira bisitan egon. Mintzatokiko bisitak eman dituzte bakarrik. Konfinamendua hasi zenean garbi zegoen ezin ginela joan. Orduan bideo dei batzuk jarri zituzten. Une hartan ederrak izan ziren: denok etxean geunden

eta berarekin egoteko aukera bat zen, aurpegia ikusteko. **COVIDarekin?**

Konfinamendua bukatu zenean beste kartzelatan hasi ziren aurrez aurreko bisitak egiten, baina Dueñasen ez. Eta mintzatokiko bisitak hasi zirenez bideo-deiak kendu egin zizkiguten. Garilean eta agorrilean aurrez aurreko bisita intimoak eman zizkiguten. Baina umeek ezin zuten joan. Ez du inolako zentzurik, beraiek COVIDa badute nik ere izanen nuke. Umeak izan aurretik erabaki genuen ez genituela mintzatokiko bisitetara eramaneen. Oso gogorra da kristal baten atzean... ezin aitarekin egon, ezin duzu ikutu, ikusi bakarrik, pantaila batean egon balitz bezala. Oso hotza da. Eta gure umeak hainbeste denbora hizketan, galdi, ez dakite egoten. Aste honetan esan digute martxotik aurrera familiako aurrez aurreko bisitak eginen direla.

Eta haurrek zer diote?

Beraien bizitzan urte bete da... Nahiz eta handienak gauzak hobetu ulertu, egoera ikusten du. Txikiak ez du batere ondo eramaten. Aitarekin jolasteko desiratzen dago. Aurrekoan esaten zidan:

jada ez naiz oso ongi akordetzen aitarekin aurpegiarekin. Eta hurrengoan elkartzen garenean, ez dakit lehen kontaktu hori nola izanen den. Nahiz eta telefonoz eta bideo deien bidez egon. Urtebete urtebete da. Urduri. Ni aitarekin hizketan nagoenean zer esaten dugun begira daude. Lagunek galdetzen digutenean hor daude beti. Alerta bezala daude. Harreman hori mantentzen lan handia egiten dut. Kaleratzen pasatzen zaigun hori, zergatik gauden urduriago, edo tristeago, zergatik gaude pozik gauza txiki bat pasatzen denean... Ez da batere erraza izaten ari. COVIDarekin, eskubide guztiak urratu dizkiete motxiladun umei. Gurasoekin egoteko eskubiderik ez dute.

Zer dio Asierrek?

Frustratuta dago. PCRak eginen ditugula esan dugu, baina ez digute uzten. Bisitarik ez dagoenez, berak baimenak eskatzen ditu eta ukatu egiten dizkiote. Gizarte Hezitzaileak arrazoia ematen digu, baina berdin dio.

Zaballa edo Martutenera lekualdatuko dute. Nolako da egoera horietan?

Martuteneko aukera aste honetan izan eta ez dut informatzeko batarik izan. Baina aurrekoan bakarren batzuekin egon nintzen Zaballakoak hizketan eta aurrez aurreko bisitak eta mintzatokiko bisitak egiten ari dira. Ondoren isolamendu egunak dituzte. Alde horretatik, desiratzen ekartzeko. Suposatzen dut Martutenen ere antzera izanen dela.

Hurbiltzeagatik zer sentitzen duzue?

Sentsazio arraroak dira. Guk etxeratzea eskatzen dugu denbora guztian. Martutenera ekartzan badute, pentsatzea gertu-gertu dagoela. Gainera, lineako autobusean joan zaitezkeela. Eta umeak benetan patinetean joan ahalko direla bisitara... kristorena da. Zeren umeek ETB ikusiko dute eta aitarekin saio jakin bati buruz hitz egiteko aukera izanen dute. Gauzak asko errazten ditu. Baina, aldi berean, urteetan eskatutako gauzak zoriontzen ari gara. Jada gauza batzuekin poztzen gara! Ikusita zer izan den, honaino ekartzeko garaipen bat da. Baina, ai! Pozik gaude. Ez dugu ukatuko.

Espetxe politikaz zerbait gehiago?

Espetxe politikan pausoak emateko presoek gogo denak erakutsi dituzte. Baina beti dute frenoren bat. Hori aldatu egin behar da. Presoen gain ez dago dena.

Arbizuarrek plazan agurtu zuten Fran Balda Araña

Larunbatean hil zen eta arbitzuak agur ekitaldia plazan egin zioten astelehenean

ARBIZU

Arbizuar ugari elkartu ziren astearte iluntzean herriko plazan. Istripu baten ondorioz hil zen Fran Balda Arañaren heriotzak herria hunkituta utzi zuen. Arbitzuak sentitzen duten hunkidura eta min hori adierazteko mikrofonoa irekita utzi zuten eta hainbat arbitzu izan ziren adierazi zutenak Balda estimatzen zutenak, faltan botako zutenak, bere ibilbidea goratu zutenak. Azken batean, harekiko sentitzen zuten maitasuna adierazi zuten arbitzuak, gehienek hitzez, baina kantu, bertso eta olerkiak ere izan ziren.

Euskal presoan Euskal Herri-ratzearen aldeko eskualdeko manifestazioaren prestaketan egon zen Etxarrin larunbatean Balda. Sareko kide gisa aritu zen han lanean. Aurretik Herrira erakundean aritu zen moduan, euskal preso eta iheslarien aldeko ekimenak sustatzen. Militantzia horregatik bitan atxilotu eta kartzelatik pasa zen. Euskal Memoria fundazioari Nafarroan tortura kasu asko jasotzen lagundu zien. Arbizuko hainbat dinamiketan ere parte hartu zuen. Gainera, udalean bi lege-gintzalditan zinegotzia izan zen, 2003tik 2011ra.

Torturari buruzko lana laguntzeko azken egunak

Bost egun barru despedituko da "torturaren errealtateak izan duen sakonera iluntasunetik argietara" ekarri nahi duen Arg(h)itzen egitasmoari diru ekarpena egiteko aukera. Verkami plataformaren bidez dirua biltzeko crowdfunding kanpaina egiten ari dira. 12.000 euro eskuratu nahi dituzte "ekoizpena baldintza onetan egiteko".

Hiltegian zatikatze gela egiteko lanak hasi dira

114,89 metro karratuko azalera eraikiko da. Han barruan eraldatze zentroa eta triperia gela jarriko dute. Gainera, hotz ekipoak berrituko dituzte. 202.225,58 euro inbertsioa egingen da (BEZ barne)

ETXARRI ARANATZ

Ettxarri Aranazko hiltegian eraldaketa gunea egiteko proiektuaren atzean daude Ettxarri Aranazko Udala, Sakanako Garapen Agentzia, Belardi ekoizle elkar-tea eta Sakanako hiltegia kooperatiba. Eraldaketa zentroa izanik abeltzainek han haragia zatikatu edota manipulatzeko aukera izanen lukete eta osasun zigilua jasota zuzenean salgai jartzeko aukera. Gaur egun hiltegian behi eta ardi azienda hiltzeko baime-na dute. Behin lanak despedituta, zaldi eta txerri azienda zatikatze aukera izanen da Sakana hiltegian, beti ere, beste hiltegi batean hildakoak.



Hiltegiaren eskuineko aldean itsasia egonen da zatikatze gela. ARTXIBOA

Sakanako Estrategia Planean jasotako egitasmoa da. Sakanako Garapen Agentziako elikadura teknikari Nerea Vianak azaldu duenez, "hiltegia sektorearendako erreminta baliagarria izatea nahi dugu, eta ahalik eta gehien dibertsifikatzeko helburuarekin bulkatu dugu handitzea".

Lanak 2018an egitekoak ziren, baina Nafarroako Gobernuak emandako dirulaguntza berandu iritsi zen eta espero baino txikiagoa izan zen. Finantziario eskuratu, Ettxarri Aranazko Udalak hiltegia handitzeko lanak Erki Construcción Sostenible SM enpresari eman dio, 122.212 euroren truke (BEZ kanpo). Berak hiltegiara atxikitako eraldatze zentroa eta triperia gela eraiki beharko ditu. Zehazki, zatikatze-eta ontziratz gela bat (29,89 m²), bi hotz kamera (16,69 m² eta 12,29 m²), haizatzte kamera bat (4,44 m²), garbitze gela (4,44 m²) bidalketa eremua (24,30 m²), garbike-ta gela bat eta zerbitzu biltegi gela (4 m²) egin beharko ditu. Solairu bakarreko 114,89 metro karratuko azalera duen eraikina da, hiltegiaren eskuin aldean

jasoko dena. Isuri bateko teilatua izanen du.

Horrekin batera, hiltegi hotz instalazioa berritu eta hobetzeko lanak ere eman ditu Ettxarri Aranazko Udalak. Tarre SA enpresak egiteko horregatik 44.916,58 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu. Aurreneko enpresak hiru hilabete ditu eraikuntza lanak despeditzeko eta atzenak, berriz, hilabete eta erdi hozkailuak jartzeko. Garagarriaren 25erako lan guztiak eginak egon behar dute. Horregatik, aste honetan hasi dira. Lanak egiten diren bitartean hiltegiak ez du bere martxa etengo.

Hiltegiak

Sakana hiltegia kooperatiba sozietatea da hiltegia kudeatzen duena. Ibarreko harakinek osatzen dute nagusiki. Ettxarri Aranatzeko Udalak 1995ean eraikitako udal jabetzako hiltegia kudeatzen du. 1999. urtean, hiltegi kortak handitu ziren. Ondoren, 2001. urtean, hobekuntzak egin ziren saneamendu sisteman, eta, berriki, administrazio eta zerbitzu gunea bat egin da.

Enpresetan euskara bultzatzeko deialdia

Nafarroako Gobernuak 154.000 euroko poltsa du eta eskaerak apirilaren 6ra arte aurkeztu behar dira. Euskara Zerbitzuak laguntza eta aholkularitza eskaintzen ditu 948 464 840 telefonoaren edo euskara2@sakana-mank.eus e-posta bidez

SAKANA

Euskararen Legean jasotakoari segituz, Nafarroako Gobernuak sektore pribatuko lantokietan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko dirulaguntzen deialdia egin du. Laguntza deialdi horren helburua da lantokietan edota enpresetan euskararen erabilera, presentzia eta ikusgaitasuna handitzea. Gainera, enpresa edo lantoki horien informazioaren eta komunikazioaren teknologietan euskara txertatzeko aukera ere ematen du.

Lan munduan euskararen presentzia eta erabilera bultzatzeko hainbat neurri hartu daitezke, esaterako: euskara plana

egitea, euskara plana betetzeko urteko hainbat ekintza egitea edota enpresetan euskararen aldeko ekintza solteak egitea (errotulazioa, langileen formazioa, webgunea, itzulpenak, barne nahiz kanpo komunikazioa...). Horretaz aparte, dirulaguntza jasotzeko aukera izanen dute webguneak eta software aplikazioak euskaraz sortzeko inbertsioak egiten duten enpresek, beti ere, komunikazioaren teknologietan euskara sustatu edo zabaltzea helburu dutenak. Horrekin batera, diruz lagunduko da webguneak eta software aplikazioak egokitu edo aldatzea, euskaraz erabiltzeko.

Horretarako, guztirako Nafarroako Gobernuak 154.000 euroko aurrekontua bideratu du, 140.000 euro lantokietan euskara sustatzera bideratuta eta 14.000 euro euskara ingurune digitalean sustatzeko. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, "dirulaguntza deialdiak prozedura zehatz bat eskatzen du laguntza horiek eskatzeko. Prozedura ez baduzue ezagutzen eta horren inguruko argibiderik behar baldin baduzue, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak laguntza eta aholkularitza eskaintzen dizue prozedura ahalik eta erosoan eta erraz egiteko".

IKASTOLAK HERRIARI HITZALDI ZIKLOA



JAZARPENA ETA TRATU ONAK
Ur Handitanen dokumentala eta solasaldia

MARTXOAK 24, 17:00-18:30
ARBIZUKO UDALETXEAN



Ikastolen Elkartaren eskutik (Euskaraz)

Edukiera mugatua. Izen-ematea: izenematea@andramariikastola.eus

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 19

ALTSASU 15 eta 19 urte
bitarteko gazteendako
oinarrizko orientazio ikastaroa.
Sakanako Mankomunitateak antolatuta.
09:00etan, Gure Etxean.

ALTSASU Gazte agenda: Ping
pong txapelketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal Presoak Euskal Herrira
elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

LARUNBATA 20

ALTSASU #PraktikatuetaBizi:
Mintza eta puntu.
Parte hartzeko: 600482024.
11:00etan, Itsasi euskaltegian.

ALTSASU Altsasuko Musika
eta Dantza Eskolaren dantza
emanaldia: Hemen gaude.
18:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda: Billar
txapelketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ZORION AGURRAK



Oihan
Zorionak Oihan. 4 urte
betetzen dituzu, barrez
eta jolasez betetako 4
urte. Zoriontsu izaten
jarraitu bihotza.



IGANDEA 21

ALTSASU Irurtzun – Erga –
Biahizpe - Irurtzun irteera.
Altsasuko Mendigoizaleak taldeak.
08:00etan, egoitzatik.

SAKANA Ziorditik Irurtzunera.
Sakanako VIII. Lilatoia,
emakume eta neskendako
lasterketa ez lehiakorra.
Irañetatik Etxarrenera
bizikletaz.

Sakanako Mankomunitatek eta
Altsasuko Udaleko berdintasun
zerbitzuek antolatuta. Izena ematea:
berdintasuna@altsasu.net edo
berdintasuna@sakana-mank.eus.
09:30etik aurrera, Ziordiko
plazatik.

LAKUNTZA Arrazakeriaren
diskriminazioaren kontrako
nazioarteko eguna. Arrazakeria
baztertu! ekitaldi parte
hartzailea.
12:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasuko Musika
eta Dantza Eskolaren dantza
emanaldia: Sustriak.
12:30ean, lortia kultur gunean.

OLAZTI Txirri, Mirri eta
Txiribiton pailazoan Bart non
ote nintzen ni? Ikuskizuna.
Sarrerak: aurretik 3 euro; egunean
3,5 euro.
17:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Non dago Mikel?
dokumentalaren emanaldia eta
solasaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal
Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 22

ETXARRI ARANATZ Pentsio
duinen aldeko kontzentrazioa.
11:00etan, plazan.

ALTSASU Pentsio duinen aldeko
kontzentrazioa.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Antón, su amigo y la revolución
rusa gaurkotasunezko filmaren
emanaldia

Ostirala 19: 19:00
Igandea 21: 19:30

Non dago Mikel? gaurkotasunezko
filmaren emanaldia
Osteguna 25: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

El silencio de otros zineforum
filmaren emanaldia

Igandea 21: 19:30

Nuevo orden zineforum filmaren
emanaldia
Osteguna 25: 19:00

ASTEARTEA 23

IRURTZUN Pentsio duinen
aldeko kontzentrazioa.
11:00etan, plazan.

ASTEAZKENA 24

IRURTZUN, ETXARRI ARANATZ
ETA ALTSASU Osasun etxea
zaindu! Elkarretaratzea.
11:00etan, osasun etxeetan.

ARBIZU Ikastolak herriari
hitzaldi zikloa: Jazarpena
eta tratatu onak. Ur Handitan
dokumentalaren emanaldia eta
solasaldia euskaraz.
Ikastolen Elkartearen eskutik. Andra
Mari ikastolak antolatuta.
17:00etatik 18:30era, kultur
udaletxean.

ALTSASU Jon Arretxeren
Desconfía liburuaren aurkezpena.
18:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 25

OLAZTI Hitzaldia: Olaztiko
Echavarri zerrategia eta
1930 urtean Olaztin egindako
filmaren emanaldia.
Hizlaria: Victor Manuel Egia Astibia
industria historiako ikertzailea.
19:00etan, liburutegian.



ARBIZU M8. Gorputz grafiak
erakusketa. Sakanako
Mankomunitateak antolatuta.
Martxoaren 5etik 24ra.
Udaletxean.

ALTSASU Liburu eremua, eremu
librea erakusketa.
Apirilaren 23ra arte. Astelehenetik
ostiralera 17:00etatik 20:00etara,
larunbatetan ikuskizuna aurretik
eta igandetan 18:30etik 19:30era,
lortia kultur gunean.



OLAZTI Palestinako emakume
errefuxiatuak UNRWA
erakundearen erakusketa
birtuala.
Martxoaren 22tik 25era. 16:30etik
20:30era, liburutegian.

OLAZTI Echabarri zerrategiaren
inguruko erakusketa.
Martxoaren 15etik 31ra. 16:30etik
20:30era, liburutegian.



EGUN ON SAKANA
Goizero 10:00-12:00
Errepikapena 14:00-16:00
web bidez: www.guaixe.eus
107.3 FM
beleixe



DE KOVEN
NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



FRAN

Balda Araña

Gero arte Fran

Itzekuek

Familikook biyotzez eskertzen dugu jaso dugun babes eta maitasun guztia

ESKELA



Fran

Balda Araña



"Azkenekua noiz?"

Hi umore ta farrak ezttiau sekula aztuko.
Ikusi arte, Fran.

Arbizu, 1967ko kintuek

ESKELA



Txerbux

Hiki
Barrunbiek guiek
Plazaratziek guiek
Bizitziek guiek
Konpartitziek guiek
Egun haundiya arte!

Eneko ta Alain

ESKELA



Fran

Balda Araña

Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

Muxu bet itzekuei,

Maitasunez, Lurren kuadrilla

ESKELA



Fran

Balda Araña

Zure begirada irrifartsua,
Apaltasun eta konpromezua,
Gure bihotzetan txinpartaka
zuk utzitako sua

Bidai on, Fran

Bihotzetik, Higerren lagunak

ESKELA



Fran

Balda Araña

Haizea bezain aske izan zaitezen

95eko Lurren ikastolako lagunak

ESKELA

Fran

Balda Araña

Orain herritik mutil bat falta da
ez dago inor bere etxeko leihoan
baso ilunetan dabil hegalean
txantxangorriak bezala.

Orain badu bihotz nimino bat
eta bi hegal, bi hegal euriz bustiak.

Bularra du ere gorri kolorekoa
eta txantxangorria da.

Etxeyek, 95ko kintuek

ESKELA



Fran

Balda Araña

(Elkartekide ohia)

Elkartasuna beresko
bee! buuba eskeintzen lehena
borroka eta parrandan
bidelaunik fiñena
paellaaten bueltan
herriya bilduubena
ez ta sekula hilko
ahazten eztena
biyotz biyotzetik
gui eskerrik onena
Garaipenera arte!

Arbizuko Argi Bidea gazte elkartea

ESKELA



Fran

Balda Araña

"Ez zara inoiz bakarrik joango
mirotz gogoa da zure arnasa izango"

Eskerrik asko emandako guztiagatik
Betirako bihotzean



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k
baino lehen.

ESKELA



Fran Balda Araña

Burruka hortan bizi da eta hori du bere egia.
Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu...
Betiko Argia.

  

ESKELA



Fran Balda Araña

Urte luzez bide lagun,
beti irakasle.
Askotan eredu, beti zirikatzaile.
Plazer hutsa izan da
zu burkide izatea.
Adiorik ez Balda!
Garaipenean ikusiko dugu elkar.




ESKELA



Fran Balda Araña

(1967-2021)

Eskerrik asko gure aliatu izateagatik.
Garaipenera arte, Balda!

Arbizuko Bilgune Feminista

ESKELA



Fran Balda Araña

Eskerrik asko urte hauetan herria
egiteagatik! Zuk utzitako hutsunea betetzen
saiatuko gara.

**Preso, iheslari eta deportatu politikoen aldeko
Arbizuko taldea**

ESKELA



Fran Balda Araña

Zuk maitasun osoz landutako bidea
jarraituko dugu denak etxera ekarri arte.



Arbizuko Udala

ESKELA



Fran Balda Araña

Zure irakaspenak geure egin eta Euskal Herri
aske, sozialista eta feminista baten alde
lanean jarraituko dugu.
Garaipenera arte!

Arbizuko Sortu

ESKELA



Fran Balda Araña



Milesker gugatik eta gu senide presuengatik
eindako guziangatik Balda!
Maite zeittugu!
Ez zeittugu iñoiz ahaztuko!

Etxarriko presoak eta senideak

ESKELA



Fran Balda Araña



Zuk zenion bezala
"elkartasuna maitasun keinu bat da"

Eskerrik asko Fran, Maite zaitugu!

Lakuntzako Sare

ESKELA



Fran Balda Araña

Badira bizitza guztian borrokatzen dutenak.
Agur ta ohore, Fran.

Urdiaingo ezker abertzalea

ESKELA

Fran Balda Araña



"Zure hutsunea handia izango den arren,
askoz handiagoa da eman diguzun guztia"



SARE
Sakanako Sare

ESKELA



Fran Balda Araña



Eskerrik asko Andra Mari Ikastolari emandako guztiagatik

"Amets bat baldin bada
Betiko bizia
Amets ederrena da,
Amets da guztia"

Andra Mari Ikastolako guraso, langile eta ikasleak

ESKELA

Fran Balda Araña



Ohorea izan da bidea zurekin partekatzea
Mila esker, Balda.
Garaipenera arte!



SARE
Altsasuko Sare

OROIGARRIA



DENBORA PASA ARREN EZIN IZANGO
DUGU ZUREKIN BIZITAKOA AHATZU
BETI EGONGO ZARA GURE BIHOTZETAN
ZURE KUADRILA

Yera Lanz Azpilikueta

III. urteurrena

Ixaro eta familia

OROIGARRIA



Salvador
Lopez de Zubiria
Goikoetxea



IV. urteurrena

Zure oroimenak indartzen gaitu

Etxekoak

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU

Etxarri Aranatz, En-fermugurutzeko demioan, 8500m²-ko lursaila salgai: guztiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tfnora.

LEHIAKETAK

Sakanako Gozamenez film laburren lehiaketa: Hilaren 14ra arte eman daiteke izena: *Intxostia-punta@altsasu.net* edo 608 617 778. Film laburrrak apirilaren 28ra arte aurkeztu daitezke. Maiatzaren 5etik 10era gazteen bozketak egingen da, gogoko lana aukeratzeko. Eta sari banaketa maiatzaren 14an izanen da. Informazio gehiago *www.altsasu.eus* webgunean. Sakanako Gozamenez eta Altsasuk Udalak.

Euskal herriko ikastolen komiki lehiaketaren I. edizioa: Gaia Amairuko gazteluaren setioa izango da, 14 – 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, bakarka edo taldekako lanak izan daitezke. PDF formatuan aurkeztu behar dira. Lanak entregatzeko azken data apirilaren 30ean, 12:00etan, izango da. Informazio osagarria: *http://www.nafarroa-ineez.eus/nafarroa-ineez.asp?IdSeccion=8&IdContenido=133* estekan edo *ehikomikilehiaketa@ikastola.eus* helbidera idatziz.

IKASTAROA

Cederna Garalurrek antolatutako doako ikastaroak: Nafar Lan-sare eta Plazaola turismo partzuergoarekin lankidetzan Turismo, merkataritza eta beste-lako zerbitzuetako negozioei zuzendutako. Presentzialak izango dira Oinarriko marketing eta sare sozialak ikastaroak (Leitzaan apirilaren 12tik maiatzaren 12ra) eta Frantsez profesionala turismoan ikastaroa (Apirilaren 20tik maiatzaren 20ra), osasun neurri egokiak hartuko dira, 16 lagun gehienek. Antolatu zure paperak: Ogasunarekin tramiteak online nola egin ikastaroa (Matxoak 23) Online izango dira. Informazio gehiago eta izen emateak 848 424 500 / 948 450 309 tfnoetan eta *mendialdea@cederna.es* helbide elektronikoan.

ZOKZETA

Elkartasun zozketa: Ziordia running taldeak Rett sindromea, gaixotasun arraroa, duen San Adriango 6 urteko neska baten aldeko elkartasun zozketa antolatu du. Txatelen salmentarekin haren etxeko komunean aldagailua jarri nahi dute, baita Bearendako propio egokitutako moldeak duen aulkia erosi nahi dute udarako. 75 sari zozketatuko dira. Txartelak euro batean eros daitezke taldeare sare sozialetako profilen bidez, 620 064 534 te-

lefonoaren bidez (Jose Ramon), Altsasuko JJ tabernan eta Ziordiko Kixkur ile apaindegian (apirilean).

OHARRA

1978ko sanferminak: Sanfermin es 78 Gogoan! elkartek eta Iruñeko Peñen Federazioak elkar-lanean gertaera haiei eta, batez ere, Peñen Ikerketa Batzordeari loturiko dokumentazioa eta informazioa berrikusteko proiektua martxan jarri dute. Gertaerekin loturiko informazioa eta, bereziki, Ikerketa Batzorde hark egindako lanarekin loturikoa bildu eta digitalizatzea da helburua. Ikerketa Batzorde harekin eta egun haietako gertaerekin loturiko informazioa eta/edo dokumentazioa duen pertsona guztiei haiekin harremanetan jar daitezke eskatu dute. E-postak: *federacionip@hotmail.com* edo *info@sanfermines78gogoan.org*

Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daitezke: Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta Estankoa; Etxarri Aranatz Kaxeta liburu dendan eta Altsasun Arkatz liburu dendan. 15 eurotan dago salgai.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Wiam Hassane**, martxoaren 13an Ziordian
- **Amal Chafia Bouzakhti**, martxoaren 13an Irurtzunen

HERIOTZAK

- **Francisco Javier Balda Araña arbizuarra**, martxoaren 13an Etxarri Aranatz

DUELA 25 URTE...



Etxarriko gaztetxean lanean

Etxarri Aranatzko Gazte Asanbladak hiru hilabete lehenago “gazteen problematika” ikusirik, gaztetxe baten beharra sumatu zuen eta elizarena zen eraikina okupatu zuten: “gure beharretarako egokia zela ikusi genuen eta azken urteetan hutsik zegoen. Herrian erreferentzia bat izatea nahi dugu, gazte eta gazte sentitzen den guztiaren bilgunea”. Gaztetxea aurrera ateratzeko gazte asanbladaren baitan hainbat komisio sortu zituzten.

EZKONTZAK

- **Amaia Checa Sarasola eta Bruno Miguel Maia Gonçalves**, martxoaren 12an Altsasun
- **Fernando Ramirez Tojal eta Gemma Gonzalez Barroso**, martxoaren 13an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”



948 19 70 70



@Grupolrache



Grupolrache



www.tanatoriosirache.es



Albisu, Peña II.a, Elezkano eta Zabaleta, asteazkenean Bizkaian egindako material aukeraketan. ASPE

Zabaletak finalerdietako toki bat du gaur jokoan

PILOTA Elezkano-Zabaletak Peña II.a-Albisuri irabazten badiete zuzenean sailkatuko dira Binakako finalerdietarako. Ezkurdia-Ladis Galarzak eta Jaka-Martijak garaipen bana lortu nahi dute, finalerdietako play-offetan sailkatzeko aukera izaten jarraitzeko

Asteburuan Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxkakako 12. jardunaldia jokatu da. Txapelketa luzea da Binakakoa, baina emozioa du, astebururo zerbait dagoelako jokoan. Baita asteburu honetan ere. Goiko postuetarako jardunaldi erabakigarria izanen da, eta zer esanik ez beheko postuetarako. Oraindik ez da ezer erabaki, eta beste jardunaldi zirrargarri baten atean gaude.

Zabaletak irabaztea du buruan

Elezkano II.a eta Zabaleta liderrek (9 puntu) Peña II.a eta Albisu (7 puntu) izanen dituzte aurkari ostiralean 17:00etan Bilbon. Sailkapenaren goiko aldean daude

bi bikoak, eta goi mailako partida espero da. Elezkano II.ak eta Zabaletak irabaztea, ez dute besterik buruan. Izan ere, irabaziz gero zuzenean sailkatuko dira finalerdietarako. Eta Zabaletak material aukeraketan azaldu zenez, "3 jardunaldi geratzen dira ligaxka despeditzeko, baina guk lehenbailehen sailkatu nahi dugu". Aurreko jardunaldian Artola eta Aranguren 3 tantotan utzi zituzten Elezkanok eta Zabaletak, ikusgarri jokatu eta gero, eta konfiantza alde dute. Faboritoak dira, baina Peña II.a eta Albisu txapelketa bikaina egiten ari dira, aurreko larunbatean Ezkurdia eta Ladis Galarza 7 tantotan utzi zituzten eta,

hortaz, ostiralean lehia oso gogorra eta estua espero da.

Martijak itxaropena du

Larunbatean Jakak eta Martijak (3 puntu) Olaizola eta Rezusta (6 puntu) izango dituzte aurkari Iruñeko Labriten 17:15ean jokatu den jaialdian. Azkeneko garaipenei esker konfiantza berreskuratu dute Jakak eta Martijak. Jakitun dira irabaziz gero finalerdietarako ligaxkan sailkatzeko aukera dutela, eta horregatik Olaizolaren eta Rezustaren kontrako partida beste final bat bailitzan prestatu dute, nahiz eta jakin badakiten partida oso zaila dutela aurretik. Martijak adierazi du ongi dagoela, ongi

jokatzen ari dela eta pilota errazago irteten zaiola eskutik. Etxarongo atzelariak azaldu duenez, "inoiz ez dugu itxaropena galdu, ezta bolada txar betean ginenean ere. Zailena egin dugu, bizirik irautea, Baina asko falta da oraindik". Olaizolaren eta Rezustaren kontra aritzea erronka zaila da (lehen itzulian 22 eta 2 galdu zuten euren kontra), baina buelta eman nahi diote. Argi dute zer egin behar duten. "Ni saiatuko naiz atzean eusten, eta Eriki aurrean errematatzeak aukerak ematen. Ea aprobetxatzen dituen". Ea hala den.

Ezkurdia bosgarrena nahi du

Ezkurdia eta Ladis Galarzak (4 puntu) igandean jokatu dute, 17:00etan, Logroñoko Adarragan, Artolaren eta Arangurenen kontra (3 puntu). Ezkurdia eta Galarzak aurreko asteburuko partida ahaztu nahi dute. Burua bere onetik aterata jokatu zuen aurrelari arbizuarrak, epaile batek egindako akats baten ondoren. 7 eta 22 galdu zuten Peña II.aren eta Albisuren kontra eta egoerari buelta eman nahi diote. Artola eta Aranguren ere ez daude bere onenean, liderren kontra jipoi ederra jasotzetik baitatoz. Beraz, egoerari buelta eman nahi dioten eta jokoan dagoen puntua behar beharrezkoa duten bi bikoaren arteko partida izango da igandekoa.

Azkenik, astelehenean, martxoaren 22an, Urrutikoetxeak eta Imazek (4 puntu) Altuna eta Mariezkurrena (8 puntu) izango dituzte aurkari. Mariezkurrenak uste du jokatzeko moduan egongo dela, baina gaur, ostirala, hartuko du erabakia, proba egin eta gero. Prest ez badago, litekeena da Bikuñak bere lekua hartzea.

1. MAILA AUTONOMIKOA

5. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Lagun Artea - Erriberri	0-1
SAILKAPENA	
1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA	
1 Avance Ezkabarte	13
10 Lagun Artea	0
HURRENGO JARDUNALDIA	
IGANDEA	
16:30 Infanzones - Lagun Artea (Gazolaz)	

Punturik gabeko bi taldeen lehia

Lagun Arteak Erriberri hartu zuen Zelai Berrin, eta nahiz eta Lakuntzako taldea etxean jokatu azken partidaren baino hobe aritu, Erriberrik merezitako garaipena lortu zuen. Igandean, Obanosen, sailkapena ixten duten bi taldeak, Lagun Arteak eta Infanzonesek, partida lehiatua dute aurretik.

ERREGIONALA GIZONAK

5. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Berriozar - Altsasu	3-2
SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 5. MULTZOA	
1 Gazte Berriak	6
7 Altsasu	1
HURRENGO JARDUNALDIAK	
OSTIRALEAN	
10:30 Gazte Berriak - Altsasu (Antsoain)	
IGANDEAN	
11:00 Arrotxapea - Altsasu (El Irati)	

Altsasuk bi partida ditu jokoan

Altsasuk garaipen garrantzitsua lortu zuen Beti Kozkor taldearen kontra. Lekunberrikoak aurreratu ziren, baina Imanolek (2), Aitorrek eta Beñatek sartutako golei esker denboraldiko lehen garaipena lortu zuten altsasuarrek. Altsasuk asteburu gogorra du aurretik. Gaur gorritxoek Gazte Berriak taldearen kontra atzeratutako partida jokatu dute, eta igandean Arrotxapea izango dute aurkari 6. jardunaldiko partidaren.

ARETO FUTBOLA Barçaren kontra "sorpresa ematera" doa Xota

Pozik, oso pozik dago Osasuna Magna Xota. Burelaren eta Antequeraren kontra bi garaipen lortu ondoren -asteazkenean Antequerari 7 eta 2 irabazi zion talde berdeak Anaitasunan eta Roberto Martilek sartutako gola jardunaldiko 2. golik onena izendatu dute- sailkapenean 10. postuan dago Osasuna Magna (31 puntu), play-off postuetatik 2

puntura. "Guretako oso garrantzitsuak dira bi garaipen hauek. Jokalariak merezi zuten, urte osoan lan izugarria egin dutelako" nabarmendu du Imanol Arregik. Kategoriari eusteko helburua gertuago du Osasuna Magnak, eta liga erabakitzeako play-off postuetatik 2 puntura dago.

Igande eguerdian 5. postuan dagoen Barça izango du aurkari Xotak Palau Blaugranan. "Bartzelonara lehiazera goaz; ea sorpresa ematen dugun" adierazi du Imanolek.

Lehengusinak eta arerioak

ARETO FUTBOLA Xotak Orvina liderra izan zuen aurkari emakumezkoen senior mailan. Partida oso estuan, Maider Osés Goikoak sartutako golari esker gailendu zen Orvina. Maider Xotako jokalaria ohia da, eta Xotako Irune Goikoa Oizen lehengusina. Biak kiroltasunaren adibide onenak izan ziren. Bestalde, Xota B-k Mutilberaren kontra galdu egin zuen.



Nahia Imaz eta Unax Trevejo juniorrak podiumean

TXIRRINDULARITZA Imaz bigarrena izan zen Atarrabian eta Trevejok tartekakoak irabazi zituen

66 txirrindularik hartu zuten parte igandean Atarrabian jokatutako Jose Ignazio Urdaniz "Cachorna" Memorialean. Kade-teen mailan (45 km) Nafarroa Ermitagañako Raquel Erdozain gailendu zen, eta bere bi taldekide lakuntzar, Leire Urtasun eta Bakarne Arregi, 35. eta 49. postuetan sailkatu ziren. Juniorretan (64 km) Rio Mierako Lucia Ruiz gailendu zitzaion esprintean Nafarroa Ermitagañako Nahia Imaz altsasuarrari.

Altsasun igandean Burunda klubak antolatutako junior mailako 35. Udaberri Trofeoan parte hartu zuten 140 txirrindulariek hotza eta euria izan zituzten bidaide. Lasterketa mugitua Xabier Zabalak (Bar Restaurante El Volante) irabazi zuen, esprintean. Qesos Albeniz Burunda etxeko taldeko Hugo Aznar 4. sailkatu zen (2:10:16) eta Unax Trevejok tartekako helmugan saria jaso zuen.

MENDI LASTERKETAK Lakuntza-Aralar bertan behera

Lakuntza-Aralar Mendi Lasterketa ekainaren 13an zen jokatzea eta Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako eta Nafarroako Jubenilen Koparako puntuagarria zen, baina antolakuntzak, Zabalarte klubak, proban bertan behera uztea erabaki du. "Bazirudien aurten ekainaren 13an lasterketa behar bezala antolatzeko aukera izango genuela, baina egoera ez da espero genuen beste inolaba. Epe motzean egoera nolakoa izango den ez jakiteak sortzen duen ziurgabetasunak eta egoeraren seriotasunak, arduraz jokatzea eskatzen du. Ea 2022ko ekainaren 12an, behingoz elkar ikusteko aukera dugun" azaldu du Zabalartek.



2018ko Altsasuko Duatloiko gizonen irteera. Aurten Ibarrea industrialdean jokatuko da proba, osasun neurriengatik ARTXIBOA

Duatleta onenak Altsasun bilduko dira bihar

DUATLOIA Larunbatean Altsasuko X. Duatloia jokatuko da Ibarrea industrialdean. 10:30ean Nafar Kirol Jolasak jokatuko dira, 15:15ean kadeteen eta gazteen proba, eta 16:00etan proba absolutua, Nafarroako Duatloi Txapelketa izango dena, eta erreleboak

Maider Betelu Ganboa ALTSASU Ibarrea industrialdeak industri jardueratik gutxi eta kiroletik eta duatloitik asko izango du bihar, larunbata. Sakana Triatloi Taldeak eta Nafarroako Triatloi Federazioak hainbat babesleren antolatuta, bertan jokatuko da Altsasuko X. Gabirondo Vehículos de Ocasión Duatloia. Egun osoko duatloi festa izango da. Antolakuntzak proba Altsasuko herrigunetik atera du eta Ibarrea industrialdean jokatuko dira kategoriatuak lasterketak, eskatutako osasun protokoloak bete ahal izateko.

Nafar Kirol Jolasetan 80 duatleta Nafarroako Kirol Jolasak goizeko 10:30etatik aurrera jokatuko dira, Ibarrean. Hiru lasterketa izanen dira: benjamin, kimuen eta haurren mailakoak. Korrikako segmentua Ibarrea industrialdean prestatutako zirkuituan egingen da eta bizikletako eremua Ibarrea industrialdearen, Txunkai kalearen eta San Juan base-

lizaren artean. Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate Mayak aipatu duenez, hiru proba hauetan guztira 80 neska-mutikok hartuko dute parte.

Espainiako Txapelketa helburu Kadete eta junior mailako gazteen lasterketa arratsaldean hasiko da, 15:15ean, Ibarrean, eta duatletek proba absolutuak duen distantzia erdia osatu beharko dute (2,5 km korrika -12,5 km bizikletan eta 1,25 km korrika). Proba Espainiako Duatloi Txapelketarako sailkagarria da. Hau da, Espainiako Txapelketan aritu nahi dutenek Altsasuko proba egin beharko dute, sailkatu ahal izateko. 50 duatleta ariko dira eta lasterketa polita eta lehiatua aurreikusten da.

Nafarroako Duatloi Txapelketa Bukatzeko, 16:00etan abiatuko da Altsasuko X. Duatloi proba absolutua, aldi berean Nafarroako Duatloi Txapelketa izanen dena, erreleboko probarekin

batera. 200 duatleta daude izena emanda, topea. Distantziari dagokionez, Ibarrean prestatutako 2,5 kilometroko zirkuituari Ibarrea tabernatik Guerra Hermanosera eta buelta- bi itzuli egin beharko dizkiote korrika, bizikleta hartu eta 25 km-ko buelta egingen dute Zegama alderantz, eta bukatzeko Ibarreako 2,5 kilometroko zirkuituari azkeneko buelta egingo diote, korrika.

Pandemiak eskatutako segurtasun neurriak direla eta, Ibarrean burbuila antzeko gunea prestatu da bospasei enpresen artean dagoen eremu batean, Ibarrea tabernaren aurrean. Bertan boxak eta trantsizio gu- neak egongo dira, irteera eta helmuga ere bertatik egingen da,

"SEKULAKO MAILA EGONGO DA, GOI MAILAKO DUATLETAK ARIKO DIRELAKO" SERGIO G. DE EULATE

eta duatletek beroketa egiteko eremua han izanen dute. Irteera kronometratua izanen da. 5 segundoro 3 pertsona aterako dira. Jakina, ikusleak ezingo dira burbuilan sartu. Burbuilatik kanpo zirkuituko edozein eremutan egon ahalko dira, baina distantziak mantenduz. Antolakuntzak ikusleei autoa Altsasun aparkatu eta Ibarreara oinez jaisteko eskaria egin die.

Guztira 330 partaide

Guztira, bada, 330 partaide izango ditu Altsasuko Krosak: 80 Nafar Kirol Jolasetan, 50 kadeteen eta juniorren proban eta 200 proba absolutuan eta erreleboetan. "Altsasuko Duatloiak erantzun bikaina izan du. Proba bakoitzean 200 pertsonendako gehieneko tokia genuen eta proba absolutuan tokia bete da. Oso pozik gaude erantzunarekin" aipatu du Sergio Garcia de Eulatek.

Altsasuko maila altuko proba izango dela gaineratu du altsasuarrak. "Sekulako maila egonen da, Espainia eta Europa mailan lehiatzen diren kirolariak ariko direlako. 6-8 duatleta dira proba irabazteko faborito argiak. Altsasuko Duatloi Krosa irabazi zuen Mikel Astiz larunbatean 6. edo 7. postuan sailkatuko balitz, lan oso ona egingo luke, eta ni 10. eta 12. postuen artean sailkatuko banintz lan itzela egingo nuke. Gu 2. edo 3. marran egongo gara bihar" azaldu du Garcia de Eulatek, irribarrez.

Faboritoen artean Iker Ortiz de Zarate eta Iker Gallastegi daude. "Soilik duatleta nafarrak ariko dira, salbuespen batzuekin. Badaude batzuk euren kluba Nafarroakoa denez, Altsasun parte hartu ahal dutenak. Eta beste batzuk Nafarroako lizentzia dute Estatu mailako probatan parte hartzen dutelako. Egun proba horiek ez daudenez, gurea etorriko dira. Batzuk kanpoan geratu dira, tokia ez zegoelako. Altsasuko Duatloian sekulako maila egonen da eta proba oso polita izango da" gaineratu du Garcia de Eulatek. Lehendabizikoek ordu bat eta 5-10 minutu beharko dituzte lana egiteko. "Izan ere, oso onak dira" nabarmendu du altsasuarrak.

Hotza iragartzen dute, baina badirudi ez dela prezipitaziorik izanen. "Sufritzea tokatuko zaigu, baina hau Sakana da. Jantzi gehiago jarri eta aurrera" dio Garcia de Eulatek irribarrez.

"Afizionatuetan ikasteko gaude; etorriko dena, etorriko da"

AITOR ALBERDI GARZIANDIA TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Afizionatuetan Rural Kutxa-Seguros RGA taldearekin debutatu du arbizuarrak. Igandean Astilleron lehiatuko da eta urte hau "ikasteko" dela argi du

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Afizionatuen mailara egin du salto Aitor Alberdik Rural Kutxa-Seguros RGA taldearekin hiru lasterketetan parte hartu du eta igandean Astilleron ariko da.

Sakana Group Aralar taldean egin zinen txirrindulari.

Nire anaia Lakuntzako taldean ibiltzen zen eta berarekin batera hasi nintzen, txikitik. Eta orain arte; bide luzea izan da.

Talde polita osatu zenuen Sakana Groupeko gainontzeko txirrindulariekin. Kadete mailan garaipenak eta emaitzak lortzen hasi zineten, baita junior mailan ere. Ba al dakizu guztira zenbat garaipen dituzun?

Ez ditut zenbatuta, baina batzuk badira. Eskoletan lasterketa batzuk irabazi nituen, kadete mailan Igor Arrietarekin batera proba batzuk irabazi genituen eta jubeniletan ere oso ongi ibili ginen.

A ze tandem osatzen zenuen Arrietarekin eta Olaetxearekin.

Bai, hala da.

Sakanako txirrindularitzan urrezko urteak izan dira azken hauek. Bai zuek, Aralar taldekoak, eta baita Burunda klubekoak ere ia astebururo podium gainean zeundeten. Goian egotera ohitu egiten da?

Zaila izaten da erregulartasun hori denboran mantentzea; baina motibatuta bazaude eta lana ongi egiten baduzu, dena ateratzen da.

Orain arte zein entrenatzailek erakutsi dizu gehien?

Askok. Hasieran Joxe Andueza-rekin ibili ginen, Aralar taldea sortu zuenarekin. Asko ibili eta erakutsi zigun. Eta azkeneko urteetan Eddi Cerviño lakuntzarak entrenatu gaitu. Asko lagundu, erakutsi eta babestu gaitu. Lan ikaragarria egin zuen gurekin. Sekulako entrenatzailea eta pertsona ona da. Oraindik harremana dugu.

Sakana Group-Aralarko txirrindularia izateaz gain, Nafarroako Selekzioarekin aritu izan zara urte hauetan eta hor ere ongi ibili zara. Nafarroako Selekzioarekin aritzea sari bat lortzea bezalakoa izaten da eta beti ongi etorria izaten da. Azken urteotan selekzioarekin esperientzia oso onak bizi izan ditugu.

Orain arte zein lasterketak markatu zaitu gehien?

Jubeniletara pasa berritan, 2019an, Villatuertako lasterketa irabazi nuen eta horrek asko markatu ninduen. Ez nuen espero jubeniletara pasa eta denboraldiko lehenengo lasterketa irabaztea. Nire buruarekin harrituta geratu nintzen.

2019 denboraldiko junior mailako Itaroa Challengea irabazi zenuen.

"PROFESIONAL IZATEAREKIN EZ NAGO OBSESIONATUTA; PAUSOZ PAUSO JOAN BEHARRA DAGO"

26 lasterketek puntuatzen zuten eta zuk lortu zenituen puntu gehien. Erregulartasunaren saria da.

Bai. Egia esan, oso denboraldi ona izan zen. Challengeak erregulartasuna saritzen duenez, oso kontentu jaso nuen saria.

Argi duzu txirrindulari profesional izan nahi duzula edo txirrindularitza gustuko duzu, gustura zaude eta denborak erakutsiko du posible den ala ez.

Bigarren aukera. Txirrindulari profesionala izatea oso zaila da. Bide honetan saiaturiko naiz, txirrindularitza ikasketekin uztartzen saiaturiko naiz eta profesional izateko aukera badago ongi etorria izango da, baina...

... ez da obsesio bat.

Argi eta garbi. Profesionaletara pasatzeko ametsa beti hor dago, baina bidea egiten jarraitu behar da. Etorri behar bada, etorriko da. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak ikasketak egiten ari naiz, Gasteizen, eta alde horretatik nire etorkizuna kirolari lotuta ikusten dut.

Bide horretan pauso erraldoia eman duzu, Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarrarekin afizionatuen mailara salto egin baituzu. Aurretik zenuen palmaresa kontuan izanda, erraza izan al da edo taldea aurkitzea ez da uste bezain erraza?

Afizionatuetara pasatzeko aurretik emaitzak izatea garrantzitsua da, baina horretaz gain goian laguntzeko prest dagoen jendea izan behar duzu. Rural

Kutxa etxeko taldea da- Iaz denboraldi hasieratik esan zidaten lasai egoteko, ea eurekin afizionatuetara pasa nahi nuen. Hortaz, iazko urtea lasaia izan zen alde horretatik. Nirekin batera Mikel Olaetxea taldekideak debutatu du Rural Kutxarekin. Ondoan taldekide bat izateak beti laguntzen du.

Iker Mintegik (Laboral Kutxa) dio kategoria berrira saltoa izugarria dela, orain arte jolasa zenak, beste seriotasun bat hartzen duela.

Bai, saltoa oso handia da. Afizionatuen denboraldia Iparraldean hasi nuen, Bokalen, Eссор Basque lasterketan, Ikerrekin batera. Ni Rural Kutxan eta bera Laboral Kutxan. Salto handia nabaritu genuen, bertan sekulako maila dutelako. Afizionatuen mailak beste prestakuntza bat eskatzen du, ordu eta dedikazio gehiago.

Entrenatzeko eta elikatzeko modua goitik behera aldatu duzu edo prozesua aurretik zetorren?

Beti gustatu izan zait elikadura eta halako alderdiak zaintzea eta hori ez zait hainbeste kosta. Ordu gehiago sartu behar dira entrenatzen eta hori gehiago kostatu zait.

Nola planifikatzen duzu astea?

Pandemiagatik ez da denboraldi normal bat izaten ari; orain hasi da mugimendua. Asteburua gogorra izan ohi denez, astelehenean normalean deskantsatzen dut. Asteartetan gimnasioko saio bat egiten dut eta ordu pare bat ateratzen naiz errepidera, lasai. Asteazkenean hiru orduko entrenamendua egiten dut, ostegunean lau ordukoa eta ostiralen erritmoa jaisten dut, astebururako atseden hartzeko. Eta asteburuan, lasterketa badago lasterketara eta gero atseden hartu, eta lasterketa ez badago fondoa egiteko aprobetxatzen dugu. Klaseak arratsaldean ditudanez goizez entrenatzen dut.

Lagunekin egoteko tarte gutxi duzu.

Astez denbora gutxi izaten dut, baina ostiraletan eta asteburutan lagunekin egoteko probesten dut, deskonektatzea ere oso garrantzitsua baita. Bestela, psikologikoki gogorra egiten da.

Eссор Basque eta Iparraldeko lasterketa horietan hasi zenuen denboraldia. Aipatu duzu bertako txirrindulariek sekulako maila zutela, oso azkar joaten zirela. Lasterketa horiekin alderatuta hemengoak ez al dira horren gogorrak edo hemengo txirrindularitza ulertzeko filosofia ezberdina da?



Aitor Alberdik erorikoa izan zuen Zumaian jokaturako

"EDDI CERVIÑOK LAN IKARAGARRIA EGIN ZUEN GUREKIN; ORAINDIK HARREMANA DUGU"



proban, baina ongi dago eta asteburuan Astilleren ariko da. UTZITAKOIA

**"HEMEN
SU MOTELEKO
TXIRRINDULARIAK
GARA, PIXKANAKA
EGITEN GARENAK"**

**"GEHIEN HARRITU
NAUENA DA GURE
TALDEA NOLA HASI
DEN, INDARTSU, LAU
GARAIPENEKIN"**

Nik uste filosofia ezberdina dela. Iparraldera lehen aldiz joan ginenean, beraiek beste erritmo bat dutela agerikoa zen. Lasterketa guztian gelditu gabe doaz, oso erritmo azkarrean. Zumaia-koa beste erritmo bat zen. Ez zen lasaia, baina ez zen Iparraldekoa bezain azkarra.

Azkenaldi honetan Europako Iparraldeko zenbait txirrindularik junior mailatik zuzenean profesionaletara egin dute salto. Geroz eta gazteago debutatzen dute: Evenepoel, van Aert, Pogacer, Roglic eta van der Poel... Oscar Guerrero kirol zuzendariak dio ez garela horrekin itsutu behar eta pazientzia izan behar dela; estatuko txirrindulariak beranduago ateratzen direla, baina beti ateratzen direla.

Azken urteotan hori izan da tendentzia Europan. Txirrindulari asko juniorretatik World Tourrera pasatu dira zuzenean. Baina hemen su motelekoak gara; pixkanaka egiten garenak, baina gero ateratzen dira.

Otsailaren 27an Zumaian jokaturako lasterketan erorikoa izan zenuen azken esprintean, baina denboraldia ongi hasi zela esan zenuen.

Bai, azken esprintean, helmugarako 200 metroren faltan erori nintzen, baina denboraldia ongi hasi zen, taldekide batek, Marc Brustengak, irabazi zuelako.

Igandean Aiztondo Klasikoa irabazi zuen Marc Brustengak. Rural Kutxan denboraldia oso ongi hasi duzue.

Igandeko Aiztondo Klasikoan sekulako ikuskizuna eman zuten taldekideek. Gehien harritu nauena da gure taldea nola hasi den, lau garaipenekin, Marc Brustengaren hiru –Eссор Basque, Zumaia eta Aiztondo– eta Francesc Bennassarrena, Sabadellen. Taldea oso indartsu hasi da eta listoa goian jarri dute. Nik momentuz hiru lasterketatant parte hartu dut, bi Iparraldean eta Zumaia-koa. Hurrena igandean jokatuko dut, Astilleron, Santanderren ondoan.

Zer nolako txirrindularia zara?

Azkarra. Esprintean azkarra. Mendi oso luzeak badira, gehiago kostatzen zait, baina mendi ertainean ongi ibiltzen naiz. Nahiko todoterrenoa naiz.

Afizionatuen lehen denboraldirako ilusio bereziren bat duzu? Non aritzea gustatuko litzaizuke?

Lehen urtea da, eta jakina, ilusioak badituz. Finean, taldekideez ikasten jarraitzea eta etxeko lasterketetan, Iturmendin eta

Altsasun, ongi ibiltzea dira ilusioak. Baina helburu nagusia ikastea da. Afizionatuen mailan lehenengo urtea beti ikasteko da. Etortzen dena etorri dadila, burua gehiegi estutu gabe. Sentsazioak onak dira. Joan zen urtean gaizki pasa nuen gaixotasun batzuk tarteko, baina buelta ematea lortu nuen; eta aurten osatzeko bidean nago. Beraz, gogotsu nago, ikasteko eta jarraitzeko irrikan.

Anbizioa izan behar da, baina ez gehiegi, kontra etorri daitekeelako. Hori da. Helburuetara iritsi ahal izateko anbizioa izan behar duzu, baina lehendabiziko urteetan gehiegizko anbizioa kaltegarria izan daiteke. Lasaiago joan behar da, pausoz pauso.

**Afizionatuetan txirrindulari sakan-
dar ugari zaudete: Olaetxea, Arrieta, Mintegi, Cerviño, Gil, Lasa, Ocaña, zu... Gurea bezalako bailara txiki batendako zenbaki potoloak dira horiek.**

Ikusgarria da. Hemen beti egon da zaletasuna, baina afizionatuetan horrenbeste txirrindulari sakandar egotea oso oso pozgarria da.

**Rural Kutxan hiru txirrindulari nafar zaudete eta horietatik 2 sakan-
dar. Zer diote gainontzeko kideek?**

Rural Kutxa talde handia da, estatu guztiko txirrindulariak hartzen ditu. Hiru nafarrez gain zenbait gipuzkoar daude, eta uste dut oso talde euskalduna sortzen dugula, estatuko gainontzeko txirrindulariekin batera.

Denboraldian sakandarren bat ikusiko al dugu podiumaren gorenean?

Nik uste dut garaipenen bat izango dugula, eta Rural Kutxakoa bada hobe (kar, kar...). Sakanan maila oso altua dago.

Orain arte taldekide izan duzun Igor Arrieta arerio izatea arraro egingo zaizu.

Oso. Urte asko egon gara elkarrekin. Ohitu arte arraroa izanen da. Ziur Igor ongi ariko dela.

Rural Kutxa-Seguros RGA taldeak UCI World Tour mailako talde profesionala du. Hori ere beste pizgarri bat izango da zuretzat.

Garrantzitsua da. Profesionaltara pasatzeko orduan beti aukera gehiago izango dituzu profesional mailako talde filial batean bazaude. Baina berriro diotsut, ni ez nago horrekin obsesionatuta. Hobe da pausoz pauso joatea eta etorri behar bada, etorriko da. Ametsa beti hor dago, baina hankak lurrean izan behar dira beti.

Zer du Sakanak?

Sakanan lau kirol zuzendari profesional daude: Oscar Guerrero (Israel Start-Up Nation), Jose Luis Arrieta (Movistar Team), Jorge Azanza (Euskaltel Euskadi) eta Pablo Urtasun (Kern Pharma). Xabier Zabalo altsasuarra Israel Start-Up Nation taldeko coacha da. Txirrindulari historikoak kontuan hartu gabe (Jose Luis Arrieta, Iker eta Igor Flores, Egoi Martinez, Alberto Martinez, Gorka Verdugo, Jorge Azanza, Pablo Urtasun...) egun hiru txirrindulari profesional dauzkagu: Imanol Erbiti (Movistar Team), Gorka Izagirre (Astana) eta Josu Etxeberria (Rural Kutxa). Aurten 8 txirrindulari amateur ditugu: Aitor Alberdi (Rural Kutxa), Igor Arrieta (Lizarte), Iker Cerviño (Telcom), Jon Gil (Lizarte), Ailetz Lasa (Laboral Kutxa), Iker Mintegi (Laboral Kutxa), Andoni Ocaña (Ciclismo Riojano Vegabike) eta Mikel Olaetxea (Rural Kutxa), bestelako teknikariak eta bi eskola garrantzitsu, Aralar eta Burunda klubak. Zer du Sakanak bertan horrenbeste txirrindulari eta kirol zuzendari sortzeko?

Oscar Guerterok Burunda klubaren aurkezpenean Juan Mari Guajardok egindako galdera horri erantzuna eman zion. "Ez dakit, agian tradizioa, esperientzia, zaletasuna... eta bizikletan ibili ahal izateko errepede oso onak. Sakanak txirrindularitzari asko ematen dio, futbolari baino gehiago. Kanpoan aipatzen dudanean sekulako inbidia izaten dute. Esaten diedanean Burundan 59 neska-mutiko ditugula ezin dute sinetsi ere egin. Beraiei lasterketa bat antolatzea izugarri kostatzen zaie. Txirrindularitzan gurea beste mundu bat da. Txirrindularitzak erakarri egiten du, eta honek horrela jarraitzea espero dugu" azaldu zuen zuzendariak.

Goizeder Beltzaren buelta

AIZKORA Aizkolari etxarriarra, Hodei Ezpeletarekin batera, Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketako txapeldunordea da. Pandemiarekin oso gaizki pasa duela aitortu du, entrenatzeko gogorik eta ilusiorik ez zuela, eta Urrezkoan aritzea oso ongi etorri zaiola

Maidar Betelu ETXARRI ARANATZ

Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketako finala igandean jokatu zen Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Hiru bikote lehia-tu ziren, eta final lehiatuan Goizeder Beltza eta Hodei Ezpeleta txapeldunordeak izan ziren (20:05), Soroa eta Amundarain txapeldunetatik 1:25era (18:40), etxarriarrendako aizkorara nolabaiteko itzulera izan den honetan.

"Ez dakit txapeldunordea izateak izena duen ala ez, baina hala atera ginen, eta pozik" azaldu du Goizeder Beltza etxarriarrak. Mendaroko Hodei Ezpeletarekin gustura ibili da. "Hodeirekin eta bere aitarekin harreman asko dut eta makina bat erakustaldi egin izan ditut biekin, baina txapelketa batean Hodeirekin aritu izan naizen lehen aldia izan da hau" aipatu du etxarriarrak. Eta ez zaie batere gaizki joan.

Ezpeletak eskatuta aritu zen

Etxarriarrak ez zuen Urrezko Binakakoan aritzeko asmorik. "Hodeiren aitak, Ernesto 'Bihurrik' hots egin zidan. Hodeiri lauzpabost aizkolarirekin bikotea osatzeko aukera eman ziotela, baina berak nirekin nahi zuela eta ea animatuko nintzen. Nik erantzun nion hilabete eta erdi baino gehiago neramatzala aizkora ikutu ere egin gabe, eta berak baietz eta baietz. "Hiikin nahi dik". Azkenean esan nien animatuko nintzela, baina antolatzaileei denbora pixka bat eskatzeko. Eta eman zidaten denbora izan zen hurrengo astean lehen kanporaketa jokatu behar genuela" dio Goizederrekin, irribarrez. Hilabete eta erdi entrenatu gabe egotea asko nabaritzen da. "Pisua hartzen duzu, gorputza faltsutu egiten da, eta ez da



Goizeder Beltza igandean Azpeitiko Izarraitzen jokaturako finalean. EGURSPORT

bakarrik ez duzula egurrekin entrenatzen. Basoan ibiltzen zara, edo bizikletan, edo zerbaitetan... eta ni denbora hori guztia ezer egin gabe egon nintzen, etxetik lanera eta lanetik etxera. Buelta ematea kosta egin zitzaidan" azaldu du Beltzak.

"PANDEMIAN OSO GAIZKI PASA DUT. EZ NUEN ENTRENATZEKO GOGORIK" GOIZEDER BELTZA

Errege egunean jokatu zuten lehendabiziko kanporaketa. "Hiru bikote ginen eta bigarrenak sailkatu ginen. Ondoren, Leitza txapelketaren finalerdia jokatu genuen. Etxeberría eta Otaegi ziren faboritoak eta eurekin lehia estua izan genuen. Azkenean 6 segundo ateratu genizkien, sorpresa eman genuen eta finalerako sailkatu ginen. Gurea egitera joan ginen, disfrutatzera" azaldu du Beltzak. Txapelketarako ez zuten behar bezala entrenatu, pandemiagatik mugak itxita daudelako. "Bikote aritzeko el-

karrekin entrenatzea izaten da hoberena. Horrela zeinek barrualdea egin, zeinek kanpoa, nola antolatu... erabakitzeke. Baina ez genuen muga zeharkatzeko ziurtagiria eta bakoitza bere kabuz prestatu da" kontatu du Beltzak. Txapelketan beti gertatzen zaiona gertatu zaio etxarriarrari, entrenatzen maila hobea ematen duela plazan baino. "Nerbioak eta, badakizu. Uste dut hori ez dela aldatuko, baina egindakoarekin pozik nago" dio irribarrez.

Finaleko gorabeherak

Igandeko finala ongi hasi zuten Goizederrekin eta Hodeik. "Hasieran gogor xamar, ezin libratuz hasi nintzen, baina izerditzan hasi eta proba aurrera joan ahal-ahala erosoago ibili nintzen. Lehendabiziko proba, bi enbor txiki erdibitzearena, guk irabazi genuen. 9 segundoko aldea ateratu genien Soroari eta Amundaraini. Rodriguez eta Basozabal atzean geratu ziren, eta beraiek ziren faboritoak. Bigarren proban Soroak eta Amundarainek 12 segundo ateratu zizkiguten. Proba luzean, txanda librekoan, lehendabiziko enborra denok paretsu bota genuen, bigarrenean adar bat ateratu zitzaigun eta hirugarrenean beste bat. Soroak eta Amundarainek oso ongi moztu zuten, abantaila hartu zuten eta erraz joan ziren. Merezita irabazi zuten." azpimarratu du Beltzak. Ondoren, borroka estua izan zuten Rodriguezekin eta Basozabalekin eta, azkenean, Beltzak eta Ezpeletak 35 segundo ateratu zizkieten. "Txanda librean enbor gehienak gure aurretik bota zituzten, baina azkeneko enborrean gu izan ginen azkarragoak" dio.

Pandemiarekin, gogo gabe

Goizeder Beltzak 2019an Nafarroako 2. mailako Aizkora Txapelketa irabazi nuen eta Nafarroako 1. Mailara igo zen. Iaz Nafarroako 1. Mailari eustea zen bere ilusioa, baina pandemia iritsi zen eta erakustaldi guztiak bertan behera geratu ziren. "Ez nuen entrenatzeko gogorik ez inolako pizgarririk. Txapelketarik ez erakustaldirik gabe ezertarako entrenatzea... pizgarri hori beharrezkoa da. Azkenean Nafarroako 1. Mailako Txapelketa jokatu zen baina, egia esan, ez nuen burua horretan eta horrela ezin daiteke gehiago eskatu. Maila galdu

nuen eta egun Nafarroako 2. mailan nago eta Euskal Herriko 3. mailan. Ez zaio bueltarik eman behar" berresten du.

Pandemiarekin oso gaizki pasa duela errepikatzen du. "Ez nuen entrenatzeko gogorik. Desanimatuta nengoen, arraso. Eta uste dut aizkolari asko ni bezala egon direla. Baina dena pasatzen da eta hau ere pasako da" dio. Horregatik, Ezpeletak bera animatzea eta Urrezko Binakakoan aritzea oso ongi etorri zaiola aitortu du. "Burua arintzeko eta eguneroko beste arazo eta kontuetatik deskonektatzeko ongi etorri zait. Eta gainera ez gara gaizki ibili. Horrek ilusioa pizten du; "ez nuen horren geizki" pentsatzen duzu, eta beste gogo batekin entrenatzen duzu" gaineratu du. Txapelketak zalerik gabe jokatzeko "oso hotza" dela azaldu du. "Finalean soilik txapelketan parte hartu zuten aizkolaria, harri jasotzaileak eta antolakuntzakoak geunden. Frontoi handi horretan harmailetara begiratu eta dena hutsik ikustea, frontoia goraino egoten denean... hotza da, tristea. Bikotea eta seme-alabak beti etortzen ziren nire saioetara, baina orain, ezin" dio.

Helburuak

Goizeder Beltzak aurtengo Nafarroako 2. Mailako Txapelketan eta Euskal Herriko 3. Mailako Txapelketan parte hartu nahiko luke, "gauzak ez badira asko makurtzen, eusten badugu eta lanak uzten badigu". Oraindik ez daki noiz jokaturiko diren, baina argi duena da lehendabiziko helburua kanporaketa ona egi-tea dela. "Kontua ez da esatea 1. mailara igo nahi duzula; final hori jokatu ahal izateko lehenik eta behin kanporaketan egun on bat izan eta finala jokatzeko sailkatu beharko zara" azpimarratzen du. Aste Santuaren ondoren Banakako Urrezko Aizkora Txapelketa jokaturiko da, baina Etxarriko aizkolaria oraindik ez daki izena emango ote duen. Aurrerago erabakiko du, argi duelako egunean egunekoa egin behar dela.

"URREZKOAN ARITZEA OSO ONDO ETORRI ZAIT. ONGI IBILI GARA, ILUSIOA PIZTU DIT" GOIZEDER BELTZA

Makinak eta onomatopeiak

Castillo Suarez Garciak 'Loinatzen loa' album ilustratua kaleratu du Ikaseldarren eskutik. Idazle altsasuarrak azaldu duenez, gaixotasun, makina, onomatopeiekin eta abarrekin ikasteko aukera ematen du liburuak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Loinatz, Castillo Suarez idazlearen pertsonaia berria da, eta Loinatz gaixo dago. Goizean jakin du gaixo dagoela, bere ama sukarra duela konturatu denean. Hortaz, ohean gelditu behar izan da, gaixo. Erdi esna erdi lo dago Loinatz eta bere ama sukaldean dagoela konturatzen da zenbat makina eta zenbat traste dauden sukaldean zarata egiten dutenak. "Dela kafe makina, dela ogia zimurtzeko makina, dela garbigailua... zarataz inguratuta bizi garela konturatzen da. Eta ezin da lokartu". Lokartzen da, baina berriz esnatzen dela azaldu du Castillo Suarezek.

Loinatzen loa Ikaseldarren proiektu berri batetik sortutako ipuina da. "Ikastolen elkarteko proiektu berri bat da eta beraien eskaintza pedagogikoa literaturarekin lotuta dago; sormenarekin". Suarez eta Euskal Herriko hainbat idazleri eta ilustratzailei "gai" bat eman diete ipuinak sortzeko. Suarezek makinei buruz idazteko enkargua jaso zuen, esaterako.

Enkargu zaila

"Hasiera batean pentsatu nuen: zer dakit nik makinei buruz? Industria poligono batean kokatuko dut liburu. Gero konturatu nintzen makinak oso gertu ditugula gure egunerokoan eta horretaz konturatzen gara argirik gabe gelditzen garenean. Erabat salduta gelditzen gara". Makinei buruzko ipuin bat ez ezik, "enkargu bikoitza" egin zion Ikaseldarrek: "makinei buruzkoa eta onomatopeiak lantzeko liburu bat izan behar zen". Hainbat onomatopeia, beraz, ezagunak direla azaldu du Suarezek, "bihotzak taup-taup, esaterako", baina makina horiek nola egiten duten "ez dugu erreparatu edo irakurri".

Onomatopeiak komikietan erabiltzen dira bereziki, baina



Castillo Suarez idazlea 'Loinatzen loa' album ilustratuarekin. IKASELAKAR

euskaraz ere erreferente gutxi daudela aipatu du idazleak. "Enkargu zaila zen". Azkenean ez zekizkien onomatopeiak "asmatu" ditu eta Elkarreko edizio lanak egin dituen Xabier Mendigurenek erreparatu ditu: "Badakite han eta hemen zer argitaratu den eta horrelakorik noizbait argitaratu den". Kanpoko onomatopeiak erabili behar izan dituzte, "euskarak baditu bereak eta ez baditu sor ditzake".

Loinatzen loa album ilustratua dagoeneko Sakanako liburu dendetan salgai dago, eta, gainera, "lan pedagogiko izugarria" dagoela azaldu du Suarezek. "Aurrekoan erakutsi zidaten eta izugarria zen zenbat fitxa eta gauza dauden liburu horretatik atera daitezkeenak". Ikaseldar sortzen ari den liburu bakoitzeko material pedagogiko oso bat dagoela esan du idazleak.

LOINATZ CASTILLO SUAREZ IDAZLEAREN PERTSONAIA BERRIA DA, ETA LOINATZ GAIXO DAGO

Loinatzen loaren kasuan lau eta bost urteko haurrek gaixotasunei buruz, makinei buruz, onomatopeiak eta abar ikas dezakete.

Bizirik

Mikel Antero da album ilustratuaren marrazkien sortzailea. "Liburuaren aurkezpenean bertan ezagutu nuen. Nik idatzi nuen, berari bidali nion eta berak marrazkiak egin zituen". Oso ohikoa izan ohi da horrela lan egitea. Antero animazioaren mundutik datorrela azaldu du Suarezek, "eta nik uste liburuan izugarri nabaritzen dela". Ordenagailuz sortutako marrazkiak dira, alaiak eta biziak. "Eman zezakeen gaixo baten historia tristea izan behar dela, baina egia esan izugarritzko bizitasuna ematen dio". Liburuan ere bitxikeria bat aurki daiteke: "Birusak marrazkietan ezkutatuta daude", eta haurrek birus horiek bilatu behar dituzte. "Ez koronabirusak. Orain koronabirusaren bolatxo iledun horiek leku guztietan ikusten ditugunez, horren bila goaz. Baina lehenago ere bazeuden birusak eta hemendik aurrera ere birusak ezagutuko ditugu". Gehiegi kontatu du.

Liburuaren istorioa garatzeko, besteak beste, "txikitako" oroitzapenak hartu ditu Suarezek. "Gaixo nengoenean aitona-amonaren etxean egoten nintzen eta denak nire inguruan egoten ziren. Limoi ura ematen zidaten eta asko gustatzen zitzaidan". Suarezek hamargarren haurrendako liburuak da, eta aurretik beste bat kaleratuko duela aurreratu du. Haur literaturarako gaiak aukeratzeko orduan "karanbolak" direla aipatu du idazleak: "Lagun baztandar batek esan zidan bere amonak hitz egin ziola Bortzeun Goibel deitutako pertsonari buruz. Pentsa pertsona bati horrela deitzea. Pertsonaia uzteko galdetu nion eta ezetz esan zidan". Baina Ehun Goibelen ipuina

bai kaleratuko du Suarezek. Altsasuko festetan ere neska bat ile oso traketsarekin ikusi zuen, "lehoi bat" ematen zuela esan du, eta ipuin bat merezi zuela pentsatu zuen.

Haurrendako literatura sortzean prozesua "antzekoa" izan ohi da. "Lehendabiziko lana da testua entregatzea". Aurretik publikatutako den bigarren liburu horren testua dagoeneko entregatuta dagoela aurreratu du Suarezek. "Aurre maketa bat egiten dute eta modu honetan marrazkilariari esango diote zenbat marrazkiekin behar dituen eta marrazki bakoitzak zer testuri dagokion. Fase horretan dago". Lehen Durangoko Azokarako kaleratuko zutela esaten zuten, baina orain "nork daki".



BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARATZU

La Excavadora

Gasteiz eta Lakuntza arteko bidearen erdian, Agurain dago, La Excavadora taldearen kuartel nagusia. Hasiera batean datu horrek tiroak nondik nora joan daitezkeen erakusten badigu ere, zalantzarik gabe tiro guzti guztiek huts egingo lukete. Agurain punk patateroaren sorlekua da, eta horixe da, hain zuzen ere, talde berri baina beterano honen lehen disko homonimoan aurkituko ez duguna.

La Excavadora"dira:

Ahotsa: Pela (SCB, Marky Ramone's Biltzkrieg)

Gitarra: Txiki eta Angelillo (Gatillazo, La Polla Records, Rockaina)

Baxua: Buton (Gatillazo, Al Karajo)

Bateria: Mikel (Childrain, Vicepresidentes)

La Excavadora taldearen lehen lan honetan argi eta garbi geratzen da bere estiloa eta soinua; ez dirudi zentzu horretan buelta asko emango dituen taldea denik, argi dute. Hori ere ez da erraza; izan ere, estiloa argi eta garbi Punk Rock da, amerikar erara jotzen duen soinua duena, baina taldekide bakoitzaren eraginaren arabera estiloen nahasketa agerian geratzen da

konposizioetan. Ez dira talde jakin batzuei buruzko erreferentziak, baizik eta taldekide bakoitzak beste talde batzuetan garatu dituen estiloei buruzkoak, edo, besterik gabe, musika ibilbide osoan gustuz entzundakoak. "Honek talde baten edo bestearen itxura du" zaleek zaila izango dute.

Diskoak hamabi abesti ditu, egitura oso zainduarekin eta lehen entzuteari lotzen zaizkion leloekin. Melodien oinarriak (oso ugariak eta egokiak) sendoak eta indartsuak dira, eta bateria esaldi batzuek soinua zorrozten dute, metalean hesituz. Zuzenekoari, diskoari leial zaion zuzenekoari oso bideratuta dauden abestiak dira.

Hitzak ere taldekide batzuen aurrekarietatik urruntzen dira, aldarrikapena hain presente egoteari utzi eta jendearen egunerokotasunetik hurbilago dauden gaiak jorratuz, pertsonalagoak dira.

Estilo fusio guzti hau konfinamenduan zehar kozinatua dago, hau da, etxean. Alde batetik, lan egiteko modu desberdina da, ez hain organikoa eta entsegu lokaleko adrenalinarik gabea, baina, bestetik, lasaigoa eta zehatzagoa dela esan daiteke.

Lehen diskoa izateko, oso lan heldua da; rocka gustatzen bazaizu, oro har, ez galdu, eta zuzenean ikus baditzaitez, askoz hobe.



Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen 'Bart non ote nintzen ni?' ikuskizuna. UTZITAKOA

Festa "benetan" barrutik bizitzeko

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen 'Bart non ote nintzen ni?' ikuskizuna egingen dute igandean, 17:30ean, Olaztiko kultura etxean. Euskal Herriko festetatik bidaia egiten dute, eserlekutik mugitu gabe

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

"Bart non ote nintzen ni? Baionara joan nintzen. Zertara? Festara ondo pasatzera!". Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen abesti ezaguna da *Bart non ote nintzen ni?*, gaur egun ikuskizuna bihurtu dute. Txirri, Mirri eta Txiribiton "gazteek edo berriek" egiten duten lehenengo lana da. Euskal Herrian zeharreko festetan bidaia proposatzen dute eta Zeledon, Mari Jaia eta abar bisitatzen dituzte eta hainbat euskal dantza eta musika dantzatzeko dituzte ere. "Festen inguruko da, eta gaur egun festak tamalez kendu dizkigutenez, gaia ezin aproposagoa da". Gaia koronabirusaren pandemiaren aurretik aukeratu zutela azaldu du Kattalin Ansorena Mirri pailazoaren papera egiten duen artistak. Igandean, martxoaren 21ean, 17:30ean, Olaztiko kultur etxean "barrenak mugiaraziko" dituzte Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen.

"Pailazoak garenez gure lana hori da: jendeari barrea ateratzea". *Bart non ote nintzen ni?* ikuskizunean, beraz, festen alde onak eta txarrak aipatzen dituzte, betiere umorearekin: "Festetan gertatzen diren astakeriak aipatzen ditugu, esaterako, lapurretak, lasaitasun eza, mobila-

rekiko obsesioa... Halako batean, Mirri eta Txirri Txiribiton animatzen saiatzen dira, baina berak mezu bat jasotzen du, eta saiatu arren, mobilarekin biziari dago". Pailazoaren lengoia unibertsala denez, "denek ulertzen dute clown-a" eta gurasoek ere barre egiten dutela aipatu du Ansorena. "Sorpresa hartu dugu hasieran guretako dena berria zelako. Guk sortu dugu obra eta jendeak benetan barre egiten duela ikusi dugu". Funtzionatzen duela eta jendeak barren egiten duela haiendako garrantzitsuen delako esan du: "Pozgarria da".

Ikuskizun berria

Ansorenatarren aita Mirri izan zen urte luzez. Txirri, Mirri eta Txiribiton "originalak" Frankismoaren garaian hasi ziren, 1972an, eta "beraien sorpresarako" arrakasta handia izan zutela azaldu du Kattalin Ansorena. "Donostian hasi ziren, kuadrilla giroan, umeentzako euskarazko ezer ez zegoelako". Leku batetik bestera

**IKUSKIZUNEAN
FESTEN ALDE ONAK
ETA TXARRAK
AIPATZEN DITUZTE
PAILAZOEN**

"asko mugitzen" hasi ziren, eta telebista saio bat izan zuten ere. "Iritsi zen garai bat, helduagoak zirenean, ezin zutela denera iritsi". Orduan, duela hamazazpi urte inguru, seme-alabari esan zien: "Prest zaudete beste talde bat sortzeko? Zuek antzokietara joango zarete eta gu telebistan geldituko gara". Halaxe egin zuten eta herriz herri "juniorrak" bezala hasi ziren.

"Ni ez nintzen ez aktorea ez pailazoa. Etxean ikasitakoa eta ikusitakoa, asko zela, nekien. Barrutik neraman". Ansorenak clown ikastaroak jasotzen hasi zen: "Ikastaroren bat ikusten nuenean joaten nintzen: Ximun Fuchs, Urko Redondo, Virginia Imaz...". Bide "hori" oso ona iruditu zitzaion. 2013an pailazo "zaharrek" erretiratuko zirela esan eta Agur parrez bira elkarrekin egin ondoren "dagoeneko ez ginen juniorrak". Erreleboa hartu zuten. Hainbat urtez betiko saioak egin ondoren, *Bart non ote nintzen ni?* talde "berriaren" lehenengo lana originala da.

Ansorenak izan zuen "zerbait berria" egiteko gogo. "Egia da oso gustura egin ditugula Txirri, Mirri eta Txiribiton saioak eta oso politak direla, baina azkenean gogo hori sartzen zaizu. Ez dakit artista naizen edo zer-

gatik, baina barrutik sortu behar nuela atera zitzaidan". Peru Ansorena anaiak asko lagundu diola azaldu du. Ikuskizunean Txirri da Peru. "Nik gidoia eta hasierakoa idatzi nuen, baina gidoiak pila bat garatzen dira eta entseguetan bizia hartzen du". Juanma Zaldua Txiribitonen ere "beste aportazio batzuk" egin ditu. "Borobiltzen joan gara, eta halaxe izan zen".

Aurretik zirriborro bat eginda bazuen ere, Ansorenak konfinamenduan izan zuen "denbora idaztera esertzeko". Hortaz, ikuskizuna konfinamenduaren ondorioa izan da, "zerbait ona ekarri zigun". Gainera, nahi gabe egin bazuten ere, aukeratutako gaia egoerarako ezinhobea da: "jendeak gogoekin hartzen du". Ikuskizunak "festa benetan barrutik" bizitzeko aukera ematen du, "jendeari barrua mugituko diogu eta ederki pasako dugu. Benetan". Pailazo hitza.

Arrakasta

"Pailazoak beti egia esaten du", gizartean dauden "akatsak, agintariei eta botereari" barre egiten diete. "Horregatik jendeak segituan konektatzen du". Emozioen eragileak dira, eta emozioak mugitzen dituzte. "Antzerkian laugarren pareta egoten da, baina pailazoen ez dugu. Jendeari begietara begiraten diogu. Hor dago eta beraiekin hitz egiten dugu". Konexio berezi bat sortzen da. Bizirik dagoen zerbaitek bada. Konfinamenduaren ondoren mustu zuten, eta "oso polita, baina hasieran tentsioa" izan zela aitortu du Ansorena: "100 pertsona bakarrik 400 pertsona sartzen diren areto batean, jendearen arteko tartea, maskarak...". Baina saioa berotzen hasi zen, eta bukaeran Txirri galdetzen zuen bukatzeko zer behar den galdetzen zuen. "Eta ume batek palomita oihukatu zuen". Orduan ikuskizunaren parte da. "Nahiz eta testu bat egon, asko inprobisatzen dugu. Erantzuna badago, inprobisatzen dugu". Hori transmititzen dela aipatu du, eta publikoa ikuskizunaren parte bihurtzen da.

**TXIRRI, MIRRI ETA
TXIRIBITON
"JUNIORRAK"
SORTUTAKO
LEHENGO LANA DA**

Erkuden Ruiz Barroso URDIAIN

Dinamoa Azpeitiko sormen gu- neak egindako bideo proiektu batek fokuen aurrean jarri du Arantza Flores argi teknikari urdiaindarra. Bideogintza ikasten ari zela, arte eszenikoak ezagutu zituen eta Bartzelonako Institut del Teatre Arte Eszenikoen goi maila ikasi zuen, argiztapenean espezializatuz. Gaur egun, Arriaga antzokiko argi teknikaria da, eta, besteak beste, Artedramaren *Atzerrian Lurra Garratz* antzezlanean lan egin du.

Zertan datza zure lana?

Zuzeneko ikuskizunetarako argi ekipamendua muntatzea, ikuskizunean zehar argi aldaketak egin eta gero desmuntatzea da. Hori teknikari moduan. Konpainiekin ibiltzen naizenean nik erabakitzen dut zein argi jarri ikuskizun horri. Ez da erraza bien artean desberdintzea edo banatzea. Pedagogikoki ezberdin daiteke, baina gero praktikan bi gauzak konturatu gabe egiten dira.

Nola iritsi zara argi teknikaria izatera?

Iturraman batxilergo artistikoa egin nuen eta, ondoren, bideogintzan murgiltzea pentsatu nuen. Gasteizera goi mailako ziklo bat egin nuen. Ziklo horretan arte eszenikoak deituta irakasgai bat geneukan, eta hor hasi nintzen antzerkiaren mundua gainetik ezagutzen. Ikastetxean egiten genituen bideo grabaketan ere konturatu nintzen argiaren garrantziaz. Gero praktiketan zuzeneko ikuskizunetan teknikoki nola lantzen zen ikusi nuen, eta asko erakarri ninduen. Bartzelonara beste ziklo bat egitera joan nintzen eta hor argi teknikaria izateko espezializatu nintzen.

Zergatik gustatu zitzaizkizun arte eszenikoak?

Ez dut inoiz hausnartu. Telebista eta zinema nola egiten zen ezagutu nuenean... ez zitzaidan gustatu. Antzerkiak daukan bat-batekotasun hori gustatu zitzaion. Orain eta hemen da. Hau gertatzen da eta zu ikusle lekuko zara. Ez da inoiz errepikatuko. Horrek badauka xarma berezia. Benetako eta egiazko momentu bat da. Zerbait grabatzen denean gero edizio bat egiten da, eta edizio hori ez da egia. Ez da gertatu dena, baizik eta ezarri nahi duguna.



Arantza Flores argi teknikaria lanean. AINHOA RESANO

"Antzerkia orain eta hemen da"

ARANTZA FLORES BENGOTXEA ARGI TEKNIKARIA

Bilboko Arriaga antzokiko argi teknikaria urdiaindarra da. Gainera, hainbat antzerki konpainiarekin lan egiten du, eta bertan "argiztapen edo sormen" aldea aukeratu du

Argiaren garrantzia aipatu duzu, zertan da garrantzitsua?

Argia lantzen dugunon artean bi aukera egoten dira: ikusten den argi bat, adibidez, kontzertuetan, edo ikusten ari zarena konturatzen ez zaren argi bat. Antzerkian, esaterako, eta nire kasuan hori gus-tuko dut. Ez du zertan argian erreparatu behar, baina argirik gabe ezin da egin. Ez da ikusten, baina sentitzen duzu. Garrantzia bakoitzaren erabakia da. Eszena konkretu batean atmosferak emozio batzuk sortzen dizkizu eta hori argiaren eraginez izan daiteke. Funtzio praktikoa ere badu, ikuslearen begirada bideratzeko, istorioa kontatzeko modu bat izan daiteke, denbora pasatzearen adierazgarri bat... Dramaturgian laguntzen du. Zenbat aukeratzen du zuzendariak eta zenbat zuk?

Zuzendariaren arabera izaten da. Baina nire esperientzia nahiko librea izan da. Nahiko askatasun izan dut beti uste edo sentitzen nuena egiteko. Gerta liteke zuzendariak esatea ez zaiola gustatzen, baina akordio batera iristen gara. Alde batetik, hor badago zein atmosfera ematen diozun eszena bati, eta, bestetik, argi aldaketak nola egiten dituzun. Horrek istorioari erritmoa emango dio. Zuzendarientzako oso garrantzitsua da, eta hor bai normalean haien oharrak ematen dituzte. Gehiago da hor, argiaren edo atmosferan sorkuntzan baino.

"OSO MUNDU MASKULINIZATUA DA, ETA TEKNIKARI BEZALA DISKRIMINAZIOA SENTITU DUT"

Nolakoa da zure egun bat?

Konpainiekin lan egiten dudanean sorkuntza prozesu bat dago, eta gero bira hasten da. Sorkuntzan gaudenean, konpainiaren eta aurrekontuaren arabera, hiru egunetarik hilabete batera egoten gara egunero entseatzen. Orduan, nik gidoia aurretik irakurri dut eta espazio eszenikoa kontuan hartuz plano bat egiten dut. Entseguekin hasteko muntaketa egiten dut. Gero bira dator eta antzoki bakoitza desberdina da. Horregatik, sorkuntza egiten dugunean pentsatu behar dugu gero nora joan behar garen. Gero desmuntatu egin behar da. Arriaga antzokian egiten dut lan ere, eta oso desberdina da. Antzokiko teknika-ria naiz eta konpainiarekin datorren teknikariari zerbitzua eman behar diot. Konpainiekin, beraz, taldearen parte zara.

Aktoreak bezala, bai. Orain ama izan naiz eta sorkuntza prozesua egiten dut baina boloak ez ditut egiten. Goizeko 8etan ateratzen zara etxetik eta gauerdian itzultzen zara. Orain ezin dut hori egin. Orduan, taldeak daukan teknikari batek edo nik topatzen dudun teknikari batek nik pasatzen diodan lana egiten du.

Eta teknikarien arteko lana nabaritzen da?

Detailetxoak nabaritzen dira. Agian enfokea beste modu batera egingo nukeela esan dezaket. Baina nik, zuzendariak eta aktoreen batek ikusiko lituzkeen detailetxoak dira. Denak koherentzia bat dauka. Argia ez dago hor nik nahi dudalako, argia dago aktore bat dagoelako edo momentu dramatiko delako.

Estilo bat duzula esan daiteke?

Ez dakit. Nirekin lan egiten duten zuzendariak galdetu beharko zenioke. Baina batzuetan bai ikusten dudala nire lanak oso desberdinak izan arren badituda errepikatzen ditudan tresnak; kolore konkretu batzuetara jotzen dudala, esaterako. Denei gertatzen zaigula uste dut, argiztatzaile guztiei. Erreferente handiak ditut, eta ikasten planoak hartzen genituen norenak ziren ezagutzen genuen. Lan egiteko modu bat dago, eta hori propioa da. Estilo bat... gehiegi esatea da.

Emakumea izateagatik diskriminazioa sentitu duzu?

Bai, sentitu dut. Batez ere teknikari moduan. Argiztatzaile moduan edo sorkuntza prozesuan askoz ere gutxiago emakumeen presentzia handiagoa delako. Baina teknikari bezala antzokietan lan egin dudanean, bai. Oso mundu maskulinizatua da. Indarra behar duzunaren ustea dago, faltsua dena, eta sartzen zarenean eta emakume bat naizela ikusten dutenean, pentsatzen dute ez naizela gai izango lan hori egiteko. Hasi nintzenean mesfidantza nabaritzen nuen eta hasieran pentsatzen nuen gaztea eta hasiberria nintzelako zela, esperientziarik ez nuelako. Baina hamabost urte daramatzat honetan

"DENAK KOHERENTZIA BAT DAUKA; ARGIA EZ DAGO HOR NIK NAHI DUDALAKO"

lanean, esperientzia badauket eta argi utzi dut nola den nire lana. Hala ere, gertatu zait nire erabakiak zalantzan jartzea, eta badaude beste batzuk zuzenean kontra egiten dutenak. Nik toki batetik hasteko esan eta beraiek kontrako lekutik esan. Eta pentsatzen duzu: "Zergatik esan dit beste aldetik hasteko...". Euren eremua inbaditzen ari zaren beldur hori daukate. Ezin dute onartu zuk erabakitzea nondik hasi behar den. Antzoki batera joaten zarenean konpainiaren arduradun gisa zoaz, eta haiek antzokiko arduradunak dira. Hartu eman hori oso garrantzitsua da. Ez da bakarrik genero kontu bat; harreman kontu bat da. Nire sektorean gertatzen den bezala ziur nago beste askotan gertatzen dela ere. Belaunaldi berrieke ez da hainbeste ikusten, baina oraindik badago.

Zer da zure lanetik gehien gustatzen zaizuna?

Ez da erraza erantzuten. Hasi nintzenean gustatzen zitzaidan mugitze hori: konpainiarekin joan herri batera eta hurrengo asteburua beste batera... Katalunian bi urtez ikasi nuen eta gero beste sei urte egon nintzen bertan lanean eta herri eta hiri asko ezagutu nituen. Hori niretako oso erakargarria zen: lan bat izatea baina ez beti leku berdinean. Denbora pasatzen da, adina aurrera doa eta geroz eta pereza gehiago ematen dizu maletak egin, hemen-dik hona ibiltzea, familia eta lagunak ezin ikusi, asteburuak lanean eta abar. Bat-batean lan oso polita dela ikusten duzu, baina... Kasu horretan, Arriagak estabilitate gehiago eman dit. Gehien gustatzen zaidana sorkuntza prozesuan egotea da. Argiekin probatzen egotea eta abar. Sortzen den giroa asko gustatzen zait, bai sorkuntzan bai konpainian. Familia bat bihurtzen da.

Herri mina duzu?

Urdiainera ahal dudanean joaten naiz. Bartzelonan bizi nintzenean ere askotan joaten nintzen, eta orain Bilbotik errazago. Urdiainera joatea arnasa hartzea da, etxeak eta lagunak ikustea... Bestela burbuila batean egotea bezala da. Baina ez xaboizko burbuila batean, urakan batean sartuta nago eta herrira iristen naizenean arnasa hartzen dut.

11 GALDERA



Korrikarik ez dago aurten. AEK-k "Bultza euskaltegiak, bultza euskara" kanpaina martxan jarri du.

"Korrika mezu hori berpizteko egiten dugu"

Korrikarik gabeko Korrika urtea izanen da 2021. urtea. Euskaltegien aldeko lasterketa martxoaren 28an amaituko zen, eta egun horretarako ekimenak antolatu dituztela esan du Patxi Flores Lazkoz Sakanako AEKko arduradunak

Alfredo Alvaro Igoa eta Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

1 Urte bakoitia eta Korrikarik ez. Nola daramazue?

Ez genuen horrelakorik espero. Joan den urtean pandemiaren istorioa hau hasi zenean, uste genuen aurten ez genuela arazorik izanen, baina ez da horrela izan eta aurten ez dago korrikarik.

2 Jendearen osasunarekiko kezkatik gelditu da bertan behera, ezta?

Bai. Gainera, guk ere hasieran zalantzak izan genituen; nola heldu behar genion kontu honi. Egin behar genuen, beste modu batez egin behar genuen... Baina azkenean erabaki zen ez egitea. Uste dugu Korrikaren esentzia jendea biltzea eta pilatzea dela, eta horrek sortzen duen indarra eta energia. Orduan, horretarako modurik ez dagoenez, bertan behera uztearen bidea hartu genuen.

3 Korrikarik gabe lasaiago zaudete?

Bueno, lasai-lasai... AEKn beti dago zerbait egiteko. Korrika ez dago, baina asmoa dago Euskal Herriko eskualde gehienetan ekitaldi bat antolatzeke Korrika bukatuko litzatekeen egun horretarako.

4 Zenbat sakanar etortzen dira euskaltegira?

Aurten hiru herritan dauzkagu taldeak. Beti bezala, Altsasun jende gehiena biltzen da. Alde batetik, herri handia delako eta, bestetik, premia handiena daukalako ere bai. Gero, talde bat Etxarri Aranatzeko dago eta Irurtzun hiruko taldea daude. Gutxi gora behera ehunen bueltan.

5 Iksleek Korrika faltan botatzen dute?

Jendeak galdetu du aurten zer gertatzen den Korrikarekin. Batzuek gogoratzen dira, beste batzuek ez. Errigoraren aurreko txandan pitzar txiki batzuk jarri

genituen salgai, kolore pixka bat emateko. Jendeak zer edo zer galdetu izan du, bai.

6 AEKk Korrikaren falta sumatzen du?

Bai, jakina. Ekonomikoki ekimen potentia da. Korrikarekin ia bermatzen dugu zulo handiegia ez izatea. Hori garbitzeko eta konpontzeko bankuekin hitz egin beharko dugu. Badi-rudi, momentuz, buelta emanen diogula.

7 Faltari aurre egiteko kanpaina berria jarri duzue martxan: Bultza euskaltegiak, bultza euskara.

Hori da. Martxoaren 28an, Korrika despedituko litzatekeen egun horretan ekitaldi bat eginen dugu. Beste alde batetik, aportazio ekonomikoa egiteko aukera dago. Oraingo honetan ez gara jendearengana paperekin eske joango, baina diru laguntza eman nahi duenak AEKren webgunetik egin dezake: aek.eus.

8 Hasiera eguna izanen zenerako zerbait prestatu duzue?

Ez. Korrika ez zegoela erabaki zenez, urte honetan akaberako bai baina hasierako ezer ez egitea erabaki zen.

9 Sakanan zer egingen duzue?

Euskal Herriko eskualde askotan egingen dira ekitaldiak. Hemen Etxarri Aranatzeko egingen dugu. Etxarri eta Altsasu artean egon ginen, baina azkenean Etxarriko Udalak laguntza eskaini zigun eta bertan egitea erabaki genuen. Zerbait xumea izanen da. Hasierako bertso batzuk, rap musika ere entzunen da, eta bi-tartean Itziar Nazabal artistak mural bat edo margo bat egingen du. Akaberan beste bertsoaren bat, eta listo.

10 Aurten ez, baina datorren urtean?

Espero dugu baietz. Urte bakoitietan egin izan dugu beti, eta aurten horrela tokatu da. Beste ekimen batzuekin bat egingen du, baina espero dugu heldu den urterako gauzak erdi normaldurik egotea eta egin ahal izatea. Urtero jendeari gogoratzen diogu Euskal Herrian bizi garela, hizkuntza hau daukagula eta gorde behar dugula. Korrika mezu hori berpizteko eta indartzeko egingen dugu.

11 Korrika bikoitza egin beharko da?

Jendeak kilometro bat egin beharrean bi egin beharko ditu, eta bikoitza pagatu (barrezka).


DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA



ZURE NEGOZIO, PRODUKTU EDO EKITALDIAREN BERRI EMAN NAHI DUZU

Kuñak, elkarrizketak, audioak, irratsaioak, web banerrak, prentsarako euskarriak... prestatuko dizkizugu

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
 619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu